



Arbizuko eskola zaharren eraikina kultur gune bihurtzeko lanak hasi dira / 11

Sakana Sarietara zortzi hautagaitza aurkeztu dituzte; botoa emateko garaia da / 12

2022 eta 2023ko Sakanako kirolaririk hoberenak hautatzeko, proposamenak eskatu ditu Mank-ek / 15

Beriain Akonkagua Sakandar Mendi Espedizioa 2023, Andeetara abiatzeko atzera kontuan / 16-17

Mila Martinez idazleak Ziordian oinarritutako liburua aurkeztuko du herrian / 21

ZUTABEAK



AINGERU MIKEO / 4



SAKANAKO
TRENAREN ALDE
PLATAFORMA
/ 5



OIHANE
AGIRRE
ULAIAR / 23



Memoria transmisioa

Altsasuko XX. mendearen lehen erdiko gertaerak auzolanean jaso dituzte / 2-3

Historia memoria auzolanean

Altsasu Memoria taldeak 'Altsasu 1936' liburua argitaratu du. Bertan herrian 1900 eta 1950 urteen artean gertatutakoa jaso dute, bereziki erreparatuz 1936ko estatu kolpearen ondoren herriak bizi izandako errepresio olatua

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Herriko historia memoria berreskuratzeko lanean hamarkada bat daruma lanean Altsasu Memoria taldeak. Bere ibilbidean mugarrria da *Altsasu 1936* liburua, Alaffaya argitaletxeak argitaratu duena. 428 orri eta 23 kapitulu XX. mendeko lehen erdian Altsasun jazo zena kontatzeko. Hura idazten eskuz esku aritu dira Amaia Urkijo Artola eta Iosu Imaz Prim. Biek aurkeztu zuten liburua ostiralean, Erkuden Ruiz Barroso **Guaixeko** kazetariak gidatu zuen ekitaldian. Liburu aurkezpenari doinua jarri ziotenak, berriz, Itziar eta Erkuden Flores eta Aritz eta Amaiur Goikoetxea izan ziren.

Liburua argazkiz ederki hornituta dago. "Irudiek testuinguru ematen dute; liburua arretaz begiratzeko da. Kontsultarako liburua da eta, jakina, ahaztuak izatea nahi izan zuten pertsona asko gogoratzeko liburua da, taldekideek oroimenaren kutxatik atera baitituzte", esan zuen Ruizek. Imazek liburuaren bi aurrekari aipatu zituen: *Navarra 1936, de la esperanza al terror* liburua eta Jose Maria Jimeno Jurio; "Altsasun irakasle egon zen eta dokumentazio oso garrantzitsua jaso zuen".

Urkijok aitortu zuenez, "lanak luze jo du. Batzuetan ez genuela bukatuko pentsatu izan dugu". Imazek esan zuenez, "egindako lanarekin pozik gaude", eta nabarmendu zuen: "Urkijo ezinbes-

tekoa izan da, Altsasu eta herriko abizenak ederki asko ezagutzen dituelako". Izan ere, informazioa lortzeko Urkijo makina bat pertsonarekin elkartu baita. Berak azaldu zuenez, "izen zerrenda bat genuen baina ez genekien zein familiatakoak ziren. Zailena pertsona bakoitza bere familian kokatzea izan da. Abizenekin nahasmena genuen, zenbait pertsonen aurreneko bi abizenak berdinak ziren; anai-arrebak, lehengusuak... nahas-masa. Hori zehaztu ondoren, egia esan, lana erraza izan da", aitortu zuen Urkijok. Familiengana jo, proiektua aurkeztu eta beraien laguntza eskatzea. Izan ere, Altsasu Memoriako ki-deendako garrantzitsua zen historia kontatzeaz aparte, hari "aurpegiak jartzea, zein ziren eta familia bakoitzaren Historia jakitea. Nik horri ematen nion garrantzia", azaldu zuen Urkijok.

Ate jotze horretan "primerako harrera egin digute; gozatu hutsa izan da familiekin egon eta haien historiak entzutea, argazkiak jasotzea. Jendeak oroigarriak altxorren pare gordetzen ditu. Bakoitzak bere hondar alea jarri du Altsasu guztiaren auzolan honetan. Bestela, ezinezkoa litzateke jaso dugun guztia jasotzea. Horregatik, gure esker ona familia horiei guztiei", nabarmendu zuen Urkijok. Jakinarazi zuenez, "ez gara guztiengana iritsi. Argazki eta datu asko faltako dira. Horregatik, Altsasu Memoriatik deia egiten diogu

jendeari ekarpenak egin ditzan. Guk lanean jarraituko dugu, eta guztia [altsasumemoria.wordpress.com](https://www.altsasumemoria.wordpress.com) webgunean jasoko dugu".

Estatu kolpea eman berri arte

Estatu kolpearen aurreko giroaren berri ematen du hasieran liburua, "laburtu behar izan dugu", aitortu zuen Imazek. Azaldu zuenez, "lana bai, baina jendeak ere elkartu nahi zuen. Sektore aurrerakoienek edo ezker-tiarrenek Circulo de Union Democratica sortu zuten, herriari bizia ematen zioten jardunak antolatuta zituena. Hilabeteetara Circulo Catolico sortu zen, han tradizionalistak eta kontserbadoreak zeuden. Hurrengo urteetako bilakaera markatuko zuten".

Imazek: "estatu kolpearen bezperan telegrafo bidez antzeman zuten Guardia Civila 70 militante altsasuar atxilotzera etorriko zela. Jakina, neurriak hartu zituzten. Garilaren 17an, 18an eta 19an Altsasutik 350 pertsona atera ziren". Gaineratu zuenez, "600 edo 700 pertsonak hanka egin zutela diotenak ere badaude, baina kopuru horren barruan olaztiarrak eta ziordiarrek daukela uste dugu".

Altsasutik hainbeste jende alde egin ondoren, "herria hutsik gelditu zen, jendea etxean sartu zen. Militarrak Lizarratik etorri ziren. Karlistek eta falangistek boterea hartu zuten. Ordurako armak herrian zituzten, estatu kolpea ongi prestatuta baitzuten.

Eta agindu faxistak indarrean jartzen hasi ziren. Junta Carlis-tak osatu zituen zerrenda beltzak, eta berak zehaztu zuen zer egin, besteak beste: udala kargugabetu, emakumezkoei ilea arrasean moztu, familia guztiak seme-alabak bataiatzera behartu, familia osoak Altsasutik botatzea... Hainbat ekimen, luze iraun zutenak", azaldu zuen Imazek.

Altsasuko Udaleko bilkura akta batean gasolio faktura baten ordainketaren berri irakurtzeak Imaz jota utzi zuen. "Altsasuko 47 familia erbesteratzeko erabilitako kamioien gasolioa ordaintzeko faktura zela zehazten zen. Familiako kide guztiak plazara eramane, kamioietan muntatu eta herritik kanpo eramane egin zituzten. Hainbat tokitara eramane zituzten, han ez zituzten ongi hartu, estigmatizatu zituzten. Batzuen berri jaso dugu, baina gehienena ez. Hori ikertzen segitu nahi genuke".

Emakumezkoek estatu kolpearen ondorioz bizitako errepresioak badu bere atala liburuan. Urkijok azaldu duenez, "orduko emakumezko altsasuarrek gizarte eta kultura jardueratan nahiko parte hartzen zuten. Sindikatu edo alderdi politikoetako kide ziren emakumezkoei buruzko lekukotasunak jaso ditugu. Batzuek ez zuten beraien ideia politikoak adierazteko beldurrik. Halakoengatik, errepresioa bizi behar izan zuten ondoren". Emakumezkoen kontrako hainbat errepresio mota zeunden, "eza-

"GOZATU HUTSA IZAN DA FAMILIEKIN EGON ETA HAIEN HISTORIAK ENTZUTEA, ARGAZKIAK JASOTZEA"

"EMAKUMEEK ASKO SUFRITU ZUTEN. BAKARRIK GELDITU ETA FAMILIA AUERRERA ATERA ZUTEN"



Erkuden Ruiz Barroso kazetariak gidatuta, Iosu Imaz

gunenak ile mozketak, errizino olio edanaraztea eta ondoren herrian barna, jendaurrean, paseatu arazten zituzten... Errepresio krudela zen, iraindu eta umiliatzea zuen helburu. Hala-koak pairatu zituzten emakumezko altsasuarren nahikoa lekukotza jaso ditugu. Halakoak pairatu zituzten, sinpleki, norbaiten alaba, emazte, alargun edo ama izateagatik". Emakumezkoek pairatutako beste errepresio motak ere aipatu zituen Urkijok: irakaslea kargutik kendu zuten, erantzukizun zibileko espedienteak zabaldu zizkieten, preso sartu, familiarekin herritik erbesteratu zituzten...

Azaldu zuenez, "emakumezkoek asko sufritu zuten. Askotan iraindu zituzten. Guztiari aurre egin behar izan zioten. Bakarrrik gelditu ziren eta familia aurrera atera behar izan zuten. Askok lurra eta azienda zuten, baina beste askok ez eta etxetik kanpo



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea





Prim eta Amaia Urkijo Artolak liburuari buruzko azalpenak eman zituzten.

lana bilatu behar izan zuten. Batzuek erbestera jo zuten senarra gerran zegoen bitartean. Altsasun gerrako umeak ere izan ziren, kapitulu bat eskaintzen diegu. Izan ere, batzuek seme-alabak kanpora bidali zituzten". Urkijok nabarmendu zuenez, "emakumezko horien guztien onena da elkar izugarri lagundu zutela, jasan behar izan zutena ikaragarria izan zelako. Horrek lagundu zien bizirauten, haiena biziraupen hutsa izan baitzen". Kapitulu "gogorra" dela aitortu zuen Urkijok.

Hildakoak, eta beste

Estatu kolpearen eta ondoren etorri ziren gerren ondorioz ehun altsasuar hil ziren. "Hasierako kopurua askoz txikiagoa zen, baina, tristeki, azkenean ehunera iritsi gara", azaldu zuen Imazek. Haietatik hamazazpi erretaguardian hil ziren, 56 frontean, bederatzi kartzela edo kontzentrazio eremuetan, hamairu preso zeudela exekutatu zituzten, hiru Frantzia okupatuan, bat fusilatuta eta bat Langileen Batailoiaren.

Atzeguardian, "gerraren hasieran hil zituztenak. Helburua haiek desagerraraztea zen, guk sekula ez opatzeko. Leze eta ez-

pondetan akabatu zituzten. Baina Otsoportillon haien oihuak irauten dute. Sakanako eraildako guztien memoria tokia da gaur egun". Aranzadi zientzia elkarteko kideek Otsoportillo eta Urbasako arrasoko lezeetatik gorpuzkiak atera zituzten, eta liburuan txostenak irakurgai daude. Haietan berreskuratu zituen Urkijok bere bi aitonen gorpuzkiak.

Testuinguru hartan herrian bizimodua "oso zaila" zela azaldu zuen Imazek, "gehienak frontean zeuden, eta biziraun beharra zuten. Familien arteko babesa handia izan zen, biziraun ahal izateko laguntza ezinbestekoa izan zen. Helburua baitzen, presioaren ondorioz familia horiek alde egitera behartzea". Gaineratu zuenez, "edozein aitzakia-rekin isunak jartzen zituzten, eta salaketa egiten zuenak isunaren erdia jasotzen zuen. Matxinatutako frontearen aldeko zerga ezarri zen, eta Errepublikan

"HASIERAKO KOPURUA ASKOZ TXIKIAGOA ZEN; TRISTEKI, AZKENEAN EHUN HILDAKORA IRITSI GARA"

karen aldeko frontean zeudenen familiek ordaintzen zuten". Imazek azaldu zuenez, "jasotako dokumentazioak gertatu zenaren ikuspegi orokorra eman digu. Gure asmoa da dokumentazio hori funts batean jartzea, iraun dezan".

Espetxeratutako eta errepresaliatutako altsasuarren berri jasotzeko lan handia egin behar izan zutela aitortu zuten, "zerrrenda oso luzea baita. Horri heltzea zaila izan zen, baina egoera hori ikusgarri egitea lortu dugula uste dut", esan zuen Imazek. Preso sartu zituzten gehienak Santoñako eta Asturiasko frontean erori ondoren izan zen. Salbu zeudela uste eta Altsasura bueltatu ziren batzuk ere kartzelan bukatu zuten. Militantziagatik espetxe zigor handiak jaso zituztenak ere izan ziren. "Erantzukizun zibilagatik isun handia jartzen zitzaizen".

Ondoren

Altsasuar askok behartutako lanak egin zituzten. "Araudia 1938an sartu zen indarrean eta Frankismoak iraun zuen bitartean indarrean egon zen. Orokorrean Diziiplina Batailoira bidaltzen zituzten, 'zorrik' ez bazuten ere erregimenaren aurkakoak

zirelako. Langileen Batailoiak, Soldadu Langileen Batailoiak eta Zigortutako Soldadu Langileen Diziiplina Batailoiak ere bazeuden", azaldu zuen Urkijok. Gaineratu zuenez, "haietan sartzen zituztenak esklabo lana egiten zuten, baldintza txarretan. Errepideak, tunelak eta halakoak egiten zituzten". Urkijok jakinarazi zuenez, "erregimenaren gertuko ziren zenbait enpresa langile horietaz baliatu ziren. Miseriazko soldata zuten, baina %75a enpresak berarendako hartzen zuen, mantenua eta ostataztea argudiatuta. Lan egun bat zigorreko biren parekoa zen. Langile haiek horrela trukutzen zuten zigorra". Eta gogorarazi zuen Altsasun 95. Langileen Batailoiaren zela, Altsasu eta Agurain arteko trenbidearen bikoizketa egin zuena 1939 eta 1943 urteen artean.

Katalunia erori ondoren Frantziaren erbesteratutako zirenak Argel-sur-Mer edo Gurs kontzentrazio eremuak ezagutu zituzten. Handik atera eta batzuk Frantzia utzi eta besteak bertan bizitzen geratu ziren. Azken horiek Bigarren Mundu Gerrak harrapatu zituen. "Altsasuar batzuk erresistentzian parte hartu zuten eta borrokan hil ziren. Beste batzuk atxilotu egin zituzten. Mauthausen kontzentrazio eremuan bi altsasuar hil zituzten. Beste bat Errusiako tropek askatu zuten. Hari buruzko lekukotza garrantzitsua eman du bere familiak", azaldu zuen Imazek. Jakinarazi zuenez, horren guztiaren inguruko informazio ugari jaso zuten eta zabaltzea gustatuko litzaiekeela gaineratu zuen. "Eta hori guztia gertatzen zen bitartean nazien erregimeneko bigarrenen zen Himmler, Madrilera bidean zela, geldialdia egin zuen Altsasun eta alkaterekin bazkaldu zuen. Asturiasko maki bat muga pasatzen lagundu ondoren atxilotetak izan ziren Altsasun, eta torturazailletako bat Meliton Manzanas izan zen. Liburuaren bukatzen bada ere, errepresioak ondoren ere segida izan zuten.

"JENDE HORRI LIBURU BAT ZOR GENION. JUSTIZIA ETA ERREPARAZIOA EZ ZAIKIE IRITSI"

Liburuan altsasuarren bizipenak jaso dituzte, baina aurkezpenean Urkijok ez zituen ahaztu nahi izan "bizi hobe baten bila Altsasura" etorri zirenak. "Sakontzeko beste gai bat da, zeren etorri zirenek Altsasun bertan sufritutako historia berak bizi izan zituzten sorterrian".

Memoria zor

Biendako "memoriaren kontzeptua ere oso garrantzitsua da: ez da bakarrik datuak, gertaerak eta giza aspektuak. Memoriak askoz ere zabalagoa izan behar du. Benetako dimentsioa izateko giza, kultura eta politika osagaiak izan behar ditu. Memoriaren alde lan egiten segitu behar da, babesa eman behar zaio (memoria tokiak, hobietatik ateratzeak...)", azaldu zuen Imazek.

Urkijok esan zuenez, liburuarekin "izugarri ikasi dut, eta jende ugari ezagutu dut. Ez epaitzen ikasi dut, lekukotzak jaso eta gure senideen historia txikia berreskuratzeko. Askok markatu nau jakiteak familia batzuetako kide guztiek errepresioa jasan behar izan zutela. Jende horri liburu bat zor genien. Justizia eta erreparazioa ez zaizkie iritsi. Eta egia da gelditzen dena, eta hori argitara atera behar genuen, nahi ez zuten arren. Memoria horrek balio du. Gainera, aurreko belaunaldiak memoria bizirik mantentzen lagundu digu. Haiengandik izugarri ikasi beharra dugu. Ondare horri segida emateko guk zerbait egin beharra genuen".

Jarrantzeko asmoa dute, baina, horretarako taldea handitu nahi lukete, "ideia pila dauzkagulako gauza berriak egiteko". Izan ere, orain arteko ikerketak tira daittekeen hainbat hari mutur utzi baitie, esaterako: gerra ondoren Frantziaren edo Bigarren Mundu Gerraren errepresioa jasan zutenak, beraien herrietako errepresio girotik ihes eginez Altsasura etorritakoak... Imazek azaldu zuenez, "erronka betetzea hiru liburu lirerateke". Bata 1900 urtera artekoa hartuko luke eta besteak 1950etik gaur egunera artekoak litzateke.

Ostiralean iragarri zuten hitzaldi zirkloa antolatuko dutela heldu den urtean. "Ekitaldi batzuk egin ditugu orain arte. Baina, apika, jendeak behar du gela batean lasai-lasai egon, gai bat hartu, haren inguruan hausnartu, nahi duenak ekarpenak egin".



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Bertsolaria

Iortiako aretoa, beteta. Nafarroako bertso txapelketako sailkapen-saioa. Sei bertsolari taulan. Lan batzuk burututa. Zortziko handian, zortziko txikian, hamarreko txikian, eta zortziko txikian puntutan. Azken proba burutzen ari dira, ganbarakoa. Aurreneko bostek amaituta, seigarrena taularatu da. Ur tragoa eta hatsa sakon hartuta, mikrofonora hurbildu da. Gai jartzaileak dio: "hiru bertso, nahi duzun neurrian eta doinu osatzeko gaia hauxe da: zure parekoaren begietan gaur zoriona sumatu duzu". Txintik ez da aditzen aretoan. Bertsolaria pentsamendu sakonetan. Neuronen sinapsiak argiaren abiaduran dabilzkio. Ea ba... begietan, zoriona... gaixotasun batetik ateratzea... burua zapiz estalita duen haur batek minbizia gaunditza, haur bat sendatzea, arruntegia... erresidentzian dagoen amonari bisita egitea, ez, ez... larregi ahaleginduta haurdun gelditza lortu duen bikotea... bai, izan liteke... prediktorea... bideko neke eta zailtasunak... bikote harremana trinkotzea... eta bukaera nolakoa... baina bikote izan gaitzen berriz guraso aurretik... bai, izan liteke... hortaz, haurdunaldiaren berriarekin eta prediktorearekin hasiko naiz... Bi minutu eta zazpi segundo pentsaketan eman ondoren,

BERTSOLARIA PENTSAMENDU SAKONETAN. NEURONEN SINAPSIK ARGIA ABIADURAN DABILZKIO

kuttuna / gaur arte triste ibili dena luzatuz aro iluna / baina poz batek dakarrena da sarri zoriontasuna / baina poz batek dakarrena da sarri zoriontasuna.

Sarri sentitzen dugu egunek duten pisuan ikara / egunak joan eta etorri ta orain gu hemen jada / parez pare ni ta bera gaude poz txiki baten islada / notizi baten zirrara eta ahotsean dardara / eskutan dauka gailu txiki bat ta zer den badakit hara / kostatu zaigu baina azkenik guraso izango gara / kostatu zaigu baina azkenik guraso izango gara.

Prozesu luze bat izan da hau eta iritsi kolpetik / eta nekea somatu dugu desio horren atzetik / gure harremana urratzeraino dihoa gure aurretik / ez gara pasa zinetik prozesu hasi zenetik / eta poz txiki bat badaukat bai zuk daukazunan bidetik / baina bikote izan gaitzen berriz guraso aurretik / baina bikote izan gaitzen guraso izan aurretik.

Larunbatean, Altsasun, euskararen oldarraldia izan zen. Euskaraz ekinez eta sortuz, eta kultura kontsumituz. Euskaldunok aurrera!!!

GUTUNA

'Bullying'-a altsasuko institutuan

MANUEL OTERO SOUTO ETA CRISTINA MADINAVEITIA POZO

Beldur gara gure alabagatik:

Gure alabak 14 urte ditu, eta 2021ean hasi zituen DBHko ikasketak Altsasuko Institutu Publikoan. Ikasturte horretan, *bullying*-a jasan zuen ikaskide baten aldetik, eta, hori zela eta, bere buruaz beste egiten saiatu zen labana batekin. Institutuari jakinarazi genion, eta hurrengo ikasturtean, ikasgela banatan jartzea lortu genuen. Horrela, alabaren kontrako jazarpena amaitu zen ikasgelan, baina atsedendian bere horretan jarraitu zuen. Horren ondorioz, gure alaba ez zen jolastokira irteten eta liburutegian geratzen zen, kanpora atera gabe.

Ikasturte honen hasieran, alaba eta ikaskidea klase berean daude berriro ere, eta ikaskideak lehengo moduan jarraitzen du, hau da, irainka, barrezka, gauzak botatzen, beste ikaskide batzuei alabari jotzeko agintzen... Nire alabak institutura joateari utzi zion, bi astez, eta 2023ko urriaren 9an institutura itzuli zen; izan ere, institutuari eta Hezkuntza Departamentuari gertatzen ari zena jakinarazi genien, eta agindu ziguten gure alaba protokolo baten bidez babestuko zutela (autobusean eta ikasgelan bananduko zituztela, eskolen artean zaintza jarriko zutela...). Hala ere, egun horretan bertan hasi zen berriro alabaren kontrako jazarpena, mutilak barre eta iseka egiten zion, gauzak burura botatzen zizkion, irteeran bere zain egoten zen, autobusean bere atzeko eserlekuan esertzen zen...

Hori gutxi balitz bezala, bi aldiz geratu da alaba bakarrik ikasgelan eta bietan aprobetxatu du ikaskideak haren kontra aritzeko... Gauzak horrela, 2023ko urriaren 27an, alabak klasera joateari utzi zion, beldurragatik. Hainbat mezu bidali ditugu institutura eta Hezkuntza Departamentura eta ez digute erantzun, informaziorik gabe jarraitzen dugu. Laburbilduz, dena beren nahierara egin eta desegiten dute.

Imajinatu dezakezue zer gaizki pasatzen ari garen, eta inori ez zaio axola, gaiari ihes egiten diote behin eta berriz, eta institutuetan inoiz ez da ezer jakiten zerbait larria gertatu arte.

Herritar guztiei laguntza eskatzen diegu gure alaba babestuta sentitu eta *bullying*-aren beste biktima bat izan ez dadin.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus



OBJEKTIBOTIK



inaki lizarraga
@Inakili

Goizeko izotza eta gero,
elur maluta batzuk bota ditu
Leizegon
Andiamendi Ergoienan,
Unanuko bordak 1100m ta.
0,6l
Goizeko min -1,1°C.
@eguraldia



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maidier Gabirondo Zelaia

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

HARA ZER DIEN

Mendi martxa

SAKANA TRENAREN ALDE PLATAFORMA

Berriki izan dugu AHTaren enegarren atzerapenaren berri. Euskal Y-a, ustez, 2033rako jarriko dute abian. AHTaren aurka gaudenondako berri oso ona da, ezen AHTa, diru publikoen zulo amaigabea izateaz gain, behin abian jartzen dutenean, diru publikoen zuloa izaten jarraituko du bidaiari kopuruak ez bailituzke kudeaketa eta mantenu kostuak ordainduko.

Eta hau horrela da Euskal Herriko inoizko azpiegitura erraldoiena, garestiena eta suntsigarriena delako. AHTak gure herrian ez ditu 350 km/h-ak hartuko. Hainbeste tunel, akueduktu eta lubaki egin ondoren abiadura handian baino, goi abiaduran joan litzatekeela esan dezakegu. Eta gurea bezalako lurralde txikian, AHTak bidaiari aurreztuko lieken denbora MINUTUTAN zenbatzen da, minutu gutxitan. Itzelezko azpiegitura suntsitzaile bat autobusari edo autoari minutu ziztrin batzuk irabazteko...

Hasieratik, Eusko Jaurlaritzak AHTaren beharraz hitz egin du: "Euskadi atzean ez gelditzeko, eta milaka kamioi bideberrietatik ateratzeko". Euskal Y-ak bidaiariez gain, salgaiak ere eramane omen zituelako. GEZUR hau etengabe ahoskatu du euskal gobernuak. Pasa den urtean

baina, aho txikiarekin eta behin lanak nahiko aurreraturik daudenean onartu zuten ez zituela salgaiak eramane. Ia 20 urteko gezurrak zertan gelditu dira? Ezerezean.

Eta gure gobernu foralaz zer dio? Ba baietz, nafar korridoreak, Euskal Y-ak eta Estatuko beste AHT lineak ez bezala, salgaiak eramane dituela. Gezurra gezurraren gainean.

Orain dela 40 urte baino gehiago erabakitako azpiegitura batekin jarraitzearekin tematurik daude: Estatuan hainbat AHT lineak porrot egin ondoren, hobekuntza ekonomikorik gertatu ez denean eta betiko trena (jendearen %95ak erabiltzen duena) hiltzen uzten ari direnean.

Larriena ordea, AHTa proiektatu zuten mundua existitzen ez dela da: berotze efektua, aldaketa klimatikoa, baliabide naturalen eskasia eta petrolioaren gutxitze larri batean gaude. Urteetan, aurkaritzari erreallitatetik kanpo egotea eta garapenaren kontra aritzea egotzi digute. Nor gelditzen ari da baina erreallitatetik kanpo?

Heldu den larunbatean, mendi martxa polita egingen dugu Lakuntza eta Arbizu ingurumarian, egin nahi dituzten AHT zundaketa lekuak ikusi eta triskantzaren tamaina bertatik bertara ikusteko. *Etorzeeye!*



Suhiltzaileen ambulanzia Altsasuko parketik ateratzen. ARTXIBOA

Baso bonba arina suhiltzaileen parkerako

Baso suteen kasuan operatiboaren erantzuna indartzeko balioko du. Aurretik zegoen zaharrago bat ordezkatu du. Foru administrazioaren asmoa da urtea despeditu aurretik dagoen kamioia ere ordezkatea

SAKANA

Nafarroako Gobernuak Barnea, Funtzio Publiko eta Justizia Departamentuak 1,75 milioi euro inbertitu ditu baso-suteetarako suhiltzaileen bost ibilgailu erosteko: hiru autobonba eta bi zisterna. Erosketa, neurri batean, Europar Batasuneko Next Generation funtsen kontura finantzatu du foru administrazioak. Ibilgailuak Lizarra, Zangoza, Tafalla eta Tuterako parkeetan erabiliko dira

Foru administrazioak jakinarazi duenez, Lizarrako baso-bonba arina Altsasuko parkean birkokatu dute, baso suteen kasuan operatiboaren erantzuna indartzeko. Altsasuko suhil-

tzaileen parkeko buru Pedro Gainzak azaldu duenez, "zahar bat genuen eta etorriko dena ia-ia berria da". Gainzak aurreratu duenez, "urte akaberarako dugun lehen irteerako kamioia ordezkatu dute. Duguna zaharra dago eta berria ekarriko dute". Bi ibilgailu horiez aparte, Altsasuko suhiltzaileen parkean ambulanzia bat eta bi orotariko ibilgailu dituzte, bat baso suteetarako eta bestea herri suteetarako. Beraz, Altsasuko suhiltzaileen parkean bost ibilgailu daude guztira.

Langileei dagokienez, Altsasuko parkean 21-22 suhiltzaile daude; haietatik zazpi kaboak dira eta gainontzeko 14 suhil-

tzaileak. Baina Altsasuko parkeko bi suhiltzaile Erreskate Teknikoko Taldean daude lanean, eta beste bat baso suteen kontrako helikopteroko brigadan ari da. Beraz, hiru suhiltzaile horiek beraien lan egutegiaren erdia Iruñean egiten dute, eta beste erdian Altsasun. Horrek, jakina, parkean lan egiten duten suhiltzaileen kopuruari eragiten dio. Gainzak azaldu duenez, "behin behineko lekualdaketatik Auriztik bi suhiltzaile etorri ziren. Baina urte hasieran birbanaketa berria egingen da. Suhiltzaileen eskolan daudenak otsailean bukatuko dute eta Altsasuko parkean langile gehiago izatea espero dugu", azaldu du.



Egitasmoaren Iruñeko aurkezpenean parte hartu zutenetako batzuk. UTZITAKOA

Josefina Arregi klinika eta San Juan de Dios Ospitalea elkarlanean

Klinikak eta ospitaleak bat egin dute landa eremuetan mendekotasuna duten adineko pertsonentzako etxez etxeko arreta hobetzeko. Horretarako, 'Rural Domus' proiektu pilotua sortu dute

SAKANA

Josefina Arregi Klinika psiko geriatricoak eta Iruñea eta Tuterako San Juan de Dios Ospitaleak *Rural Domus* proiektu pilotua aurkeztu zuten Iruñean atzo. Jakinarazi zuten, egitasmoa Nafarroako bi eskualdetan probatuko dute: Corella-Cintruñon eta Sakanan. Bi erakundeetako arduradunek azaldu zuten, abiaraziko duten proiektu horren helburu nagusia da Foru Erkidegoko landa eremuetan mendekotasuna duten adinekoendako etxeko zainketak hobetzea, pertsonarengan oinarritutako arreta integrala eskainiz.

Aurkezpenean klinikako gerente Angel Gardachal Ausejok proiektuaren garrantzia azpimarratu zuen, hainbat arlo uzartzeko duen potentziala azpimarratuz: "Proiektuak potentzial

handia du, osasun arloa prestakuntzarekin, gizarteratzearekin eta laneratzearekin konbinatze-ko aukera ematen duelako, batez ere langabezia edo gizarte bazterketan egon daitezkeen zaintzaileendako". Mendekotasuna duten adineko pertsonen zaintza hobetzeko lanean jarraitzeko beharra ere azpimarratu zuen, eta, ahal den neurrian, adinekoen instituzionalizazioa murrizten lagundu behar zela nabarmendu zuen. Hau da, adinekoak ospitale edota egoitza ospitaleetan ahalik eta gutxien egotea. Izan ere, "gizarte eta

"ADINEKOENDAKO ETXEZ ETXEGO ARRETAREN ESKARIA GERO ETA HANDIAGO DA"

landa errotzea izan da gure Klinikaren zutabe nagusietako bat eta gure fundatzaile Felipe Lecearen borondateetako bat. Proiektu honen bidez, Sakanarako zerbitzu hobe ematearen aldeko apustua egiten jarraitzen dugu, inguruko zerbitzuak hobetzen eta indartzen lagunduz, eta, zehazki, demenzia duten adinekoen zuzendutako zerbitzu soziosanitarioak", azaldu zuen.

Landa eremuko proiektu aitzindaria. Hala definitu dute sustatzaileek esku artean duten egitasmoa. Gardachalek nabarmendu zuenez, "proiektuaren alderdirik nabarmenetako bat bere ikuspegi aitzindaria eta kokapena da. Uste dugu landa eremuetako berezitasunetara berariaz egokitutako kalitatezko etxez etxeko zerbitzuen garapenari ekitea funtsezkoa dela. Horrega-

tik sortu dugu *Rural Domus*. Izan ere, landa eremuetako adineko biztanleriaren hazkundera eta adinekoendako etxez etxeko arretaren eskaria gero eta handiagoak dira", azaldu zuen Gardachalek.

Zaintzaileen prestakuntza eta profesionalizazioa

Klinikak eta ospitaleak sustatutako ekimenak etxez etxeko arretarako eredu bat ezarri nahi du, landa inguruneko beharretara egokitua, zaintzaileen prestakuntzaren eta profesionalizazioaren, haien laneratzearen eta gizarte ekonomiako proposamenen sustapenaren bidez. Ildo horretan, Iruñea-Tutera San Juan de Dios Ospitaleko zuzendari gerente Patricia Segura Sadabak adierazi zuenez, "bi erakundeek arreta hori hobetzeko borondatea dugu, gaur egun gure landa ingurunean zerbitzu hori ematen duten langileak trebatzen, profesionalizatzen eta laneratzen lagunduz".

Iruñea eta Tuterako San Juan de Dios Ospitaleko gerenteak "komunitatea laguntzeko sareak eratzea beharrezkoa" dela ziurtatu zuen. Segurak gaineratu zuenez, Nafarroako 65 urtetik gorako pertsonen egindako inkestatik "ondorioztatzen denez, kontuan izan behar dugu gure adinekoen %73k etxeko lanerako eta zaintza pertsonalerako etxez etxeko laguntza eskatzen dutela, orain edo etorkizunerako". Indize horri gehitu zion "etxean bizitzen jarraitu nahi duten 80 urtetik gorako 5 pertsonatik 4k adierazitako lehentasuna".

Hori dela eta, proiektuak barne hartzen du gizarteratzeko enpresa bat sortzea (2024ko azken hiruhilekoan eratzea aurreikusuten da), landa eremuetan inoren laguntza behar duten adinekoak zaintzeko kooperatibak edota mikrokooperatiben sorrera bulkatzea eta *Landa Eremuko Etxez Etxeko Zaintzarako Eskola* bat ezartzea, arlo horretan lan egin nahi dutenei prestakuntza espezializatua emateko. Eskola heldu den urteko apirilean ha-

ZERBITZUA EMATEN DUTENAK TREBATZEN, PROFESIONALIZATZEN ETA LANERATZEN LAGUNDUKO DUGU"

siko da martxan. Ospitaleko zuzendariak zerbitzu horien beharra oinarritu zuen: "adinekoak etxean artatzeaz arduratzen diren langileen ia erdiek alde aurretik esperientziarik ez dutela adierazten dute, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak egin berri duen azterlan baten arabera, eta gai hori askoz gehiago zailtzen da landa ingurunean". Iruñea-Tutera San Juan de Dios Ospitalearen egiteko nagusia mendekotasuna duten pertsonak artatzeko zaintzaileak trebatzea izanen da.

Segurak eta Gardachalek nabarmendu zuten, *Rural Domus* "bi erakundeendako konpromiso sendoa da inoren laguntza behar duten adinekoen bizi kalitatea landa komunitateetan hobetzeko, zaintzaileen prestakuntza eta profesionalizazioa bultzatzeaz aparte, laneratzea sustatuz eta arlo horietan gizarte ekonomia sustatzen du. Datoren bi urteetan Nafarroako landa komunitateei aukera eta aukera berriak emango dizkien ekimen baten hasiera da".

Babesak

Egitasmoa Iruñean atzo aurkeztu bazuten ere, proiektu pilotua ezarriko den bi eskualdeetan dagoeneko aurkeztua zuten. Sakanako aurkezpena lastailaren 26an egin zen, Altsasuko Iortia kultur gunean. Hara gonbidatu zituzten, besteak beste, ibarreko hiru Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateetako langileak, berdintasun teknikariak, adinekoen arreta ematearekin lotutako erakundeetako langileak, Sakanako Garapen Agentzia eta jubilatutako elkarrekin ordezkariek ere.

Proiektua La Caixa Fundazioaren eta Nafarroako Kutxa Fundazioaren Innova Social programak finantzatzen dute, eta Nafarroako Gobernuaren Gizarte Eskubideen, Gizarte Ekonomiaren eta Enpleguaren Departamentuaren babesa ere badu. Aurkezpen ekitaldian izan ziren Nafarroako Kutxa Fundazioko presidente Jose Angel Andres Gutierrez, Nafarroako Autonomia eta Pertsonen Garapenerako Agentziako zuzendari Ines Frances, Gizarte Ekonomiako zuzendari nagusi Iñaki Mendioroz, Tuterako San Juan de Dios Ospitaleko gerente Segura eta klinikako gerente Gardachal.



*Euskararekin
gora eta gora beti!*

AZAROAREN 3tik ABENDUAREN 10era

50 ekitaldi baino gehiago, Nafarroako txoko guztietan, haur, gaztetxo eta familientzat, **Euskararen Nazioarteko Eguna** ospatzeko.

Azaroa

- 15** *Liburu sendalaria*
DORRAO
Herri aretoan - Kultur zentroan
17:30ean

Abendua

- 7** *Ez dago kutxarik niretzat*
LAKUNTZA
Kultur Etxean
19:00etan





'Gaitu.eus' webgunean sartuta, gure ahotsa jasoko dute. GAITU

Gaitu kanpainak euskarazko milaka ahots behar ditu

Teknologia berrietan euskararen presentzia sustatzeko, 'Gaitu.eus' webguneak jendearen ahotsak jasotzen ditu

SAKANA

Sare sozialetan, telebistan, irradian, idatzizko komunikabideetan, publizitatean eta baita jendearen arteko elkarrizketetan ere Gaitu kanpainaren berri izaten ari gara egunotan. "Gaitu kanpainak euskarazko milaka ahots behar ditu", "Gaitu.eus webgunera sartu eta euskarazko grabazioa utzi"... handik eta hemendik borborka dabiltza mezuak.

Gaitu.eus

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak jarri dute martxan Gaitu izeneko kanpaina. Kanpainak *Batu ditzagun gure ahotsak* du leloa, eta Donostian aurkeztu zuten. Kanpainaren helburua eremu digitalean euskararen presentzia handitzea da, eta, kasu honetan, euskarazko ahotsak dira behar dituztenak, "milaka ahots". *Gaitu.eus* webgunea aktibatuta dute horretarako, eta euskaldunei bertan sartzeko deia egin diete, euren ahotsa grabatu ahal izateko.

Kanpaina abenduaren 3ra bitartean sustatuko dute. Hain zuzen ere, Euskararen Egunean despedituko da. Tarte horretan, webgunea ezagutaraziko dute, teknologia berrietan euskararen presentzia sustatzearen garrantziaren berri emango dute, eta hainbat egitasmo zehatz martxan jarriko dira. Esaterako, jendearen ahotsak grabatzeko maratoiak, mugikorra eta ordenagailuko nabigatzailea euskaraz konfiguratzeko kanpaina.

Bi lan

Gaitu webgunean sartuz gero, bi eginkizun proposatzen zaizkie bertan sartzen direnei. Batetik, idatzita dagoen esaldi bat irakurtzea, ozenki grabatzen den bitartean. Nahi adina esaldi graba daitezke. Bestalde, beste hiztunek grabatutako esaldiak baliotzatzea. Hori ere nahi adina aldiz egiteko aukera dago.

Ahots sakandarrak ere

Antolatzaileek ekimenean parte hartzea deitu dute. "Milaka ahots behar ditugu, milaka grabazio ordu euskaraz. Hortaz, zenbat eta ahots gehiago lortu, hobeto". Izan ere, hizkuntza gutxituak ez daude enpresa teknologiko handien asmoetan, eta hiztunen komunitateek aparteko ahalegina egin behar dute hor toki bat egiteko, bide propioa eginez.

Software librea

Librezale elkarteak eragile da Gaitu proiektuan. Ahotsak biltzeko Common voice izeneko ekimen irekia erabiltzen ari dira. Irabazi asmorik gabekoa da, kolaboratiboa, eta orain "masiboa" bihurtu nahi dute. Ildo honetan, software librearen bidez garatutako sistema baten bidez jardutearen garrantzia nabarmendu dute. Haien esanetan, hizkuntza gutxituek aukera gehiago dituzte bide hori aukeratuta, eta hizkuntza asko egiten ari dira hau. Aurkezpenean azaldu zutenenez, 105 hizkuntzatan hasiak dira sistema horren bidez ahots ekarpenak egiten.

"Zaintza denok behar dugu bizitzeko, bizirauteko"

IOANA IJURKO ETA KITZ MENDIOLA MUGIMENDU FEMINISTAKO KIDEAK

Azaroaren 30eko greba feminista orokorraren prestaketan buru belarri ari dira ibarreko feministak, eta, haiekin batera, hainbat eragile

SAKANA

Pertsona guztiek bizi osoan zehar, askatasunez eta konpromisoaz, zaintza eskaintzeko eta jasotzeko duten eskubidea. Hala definitzen du zaintza mugimendu feministak. Hura aldarrikatzeko, aitortzeko eta behar bezala egin dadin aldarrikatzeko grebara deitu du hileko azken egunean.

Zer da greba feminista orokorra?

Kitz. Lehenik eta behin, esan beharra dago, lehen aldia izango dela greba feminista orokorra deitzen dela Euskal Herrian. Gainera, ohituta gauden normalean greba deialdiak edo lidergoa sindikatuek izatea, hau da, arlo produktiboak. Baina kasu honetan Euskal Herriko mugimendu feminista da grebara deitzen duena, arlo produktibotik haratago doan greba da.

Ioana. Prozesu luze baten ondorio edo mugarri da greba hau, Denon bizitzak erdigunean mugimenduari hasi zena, eta bizitzak edo zaintzak erdigunean jartzea aldarrikatzen zuena. Zaintzarako eskubide unibertsalak aldarrikatzen da beraz; hau da, pertsona guztiek beren bizitza osoan zehar zaintzak jasotzeko edota emateko duten eskubidea. Egungo zaintza sistemak ez du hori bermatzen, ezta zaintzaren garrantzia aitortzen, eta hortik datoz greba honen aldarrikapenak.

Zer alde dago 2018 eta 2019ko grebekin?

K. Greba hau orokorra da. Urte horietako grebak, ordu batzuetako geldialdiak izan ziren. Greba subjektua ere ezberdina zen. Emakumeak* zeuden deituak, hainbat geldialdi egitera, aurreten ordea jendarte osoa dago deitua greba egitera. Ezin da ukatu greba haiek oinarria izan zirenik; kontsumo eta enplegu greba bat izateaz aparte, mahaia gainean jarri baitzuten zaintza ere. Zaintza greba batera izan ginen deituak eta hor ere azaleratu nahi zen zaintzarik gabe bizitza ezinezkoa dela.

Zergatik deitu duzue greba feminista?

I. Beno, pandemia garaian agerian geratu zen zaintza ereduaren krisia, baita saldu diguten indibidualismoaren mitoa ere, gizakion zaurgarritasuna eta interdependentsia ezkatutuz. Zaintzen krisia aurretik ere hausnartua zegoen. Pandemiaren geroztik normaltasuna berreskuratu bada ere, zaintza lana prekarizatu, ikusezina eta feminizatu dago, edo jarraitzen du. Zaintza eredu familiar oinarritzen da Hego Euskal Herrian behintzat, hau da, zaintza lanak familiar emakumeek zaindaturik egiten direla.

"ZAINTZA LANA PREKARIZATUA, IKUSEZINA ETA FEMINIZATUA DAGO, EDO JARRAITZEN DU"

ten dira eta ehuneko handi batean emakumeek zaintzen dute.

K. Hortaz, eredu heteropatriarkala da, baina baita kapitalista eta arrazista ere. Zaintza lanak merkantilizatu egin dira, enpresa pribatuak sartu dira behar horiek asetzera, zerbitzuak pribatizatu eta lanak prekarizatu. Bestalde, familien lanen kanpora ateratzea ere badago, eta beste emakume zaurgarriago batzuen deskargatzen du familiar berak eutsi ezin dituen zaintza lanak. Gainera, egoera irregularrez josita daude.

Zer da zaintza?

I. Zaintza denok behar dugu bizitzeko, bizirauteko. Amaren tripan gaudenetik hil arte. Zeinek zaintzen gaitu gaixo gaudenean? Hanka puskatzen badugu? Umeak ginenean? Egoera zaurgarrietan gaudenean? Zahartzaroan? Askotan, inguruko gure ama, ahizpa, zaintzaileen aurpegiak etorriko zaizkigu. Gehienetan emakumeak, isilpean egiten dena da maiz, baina oso beharrezkoa denontzat. Eskubide pertsonal eta kolektibo bat da. 12.500 milioi ordu egiten dira zaintzan lan ez ordaindutan urtero.

Zer da zaintza greba?

K. Zaintza greba zaintza lanak uztea izango litzateke, egun batez. Baina, jakin badakigu, hori ezinezkoa dela. Hain zuzen, ezin ditugu zaintzak alde batera utzi, badaude zaintza batzuk eten ezin direnak. Eta hor dago grebaren



Ioana Ijurko Risco eta Kitz Mendiola Barandalla. UTZITAKOIA

balio erantsia, bizitzari eusteko zein garrantzitsuak eta ezinbestekoak diren ikusaraztea, balioa ematea eta aitortzea.

I. Arrazoiak, dena den, ez dira zaintzaren konplexutasunagatik bakarrik. Beste kasu batzuetan zaintzaileak direnak ere ezin dute grebarik egin eskubidea bermatua ez dutelako: ezkutuko ekonomiak, kontratu prekarioak... hau ere hausnartzeko gako bat da.

Zergatik erreparatu dio mugimendu feministak zaintzari?

I. Zaintza pertsona guztiondako bizimodu duina eraikitzeke ezinbesteko oinarria delako. Bizi prozesu osoan behar dugu, gure gorputzean eta komunitatean. Bizi dugun sistema kapitalista, arrazista, heteropatriarkalak estrukturaliki ez du hori ahalbidetzen. Ez baititu kontutan hartzen pertsonen beharrak, bizitzaren zikloak, erritmoak... Zaintza

ez da gutxi batzuen pribilegioa izan behar, denon eskubidea da. **Zein helburu lortu nahi ditu mugimendu feministak zaintzaren arloan?**

K. Lehen esan dugun bezala, greba feminista orokorra mugarririk bat besterik ez da. Helburua, gizartea eta instituzioak interpellatzea da. Batetik, zaintza eskubide kolektibo bezala aitortzen duen eta zaintza antolamendua aldatuko duen Herri akordio bat eraiki nahi da.

I. Hortaz, euskal zaintza sistema publiko eta komunitario bat erakitzea dugu helburu, zaintzak demokratizatu eta zaintza lanak

"GUZTIONDAKO BIZIMODU DUINA ERAIKITZEKO EZINBESTEKO OINARRIA DA ZAINZA"

erantzukizun kolektibo gisa bilzen dituen, komunitatea eta arlo publikoa batuz.

Zein dago grebara deituta?

K. Lehenago aipatu bezala, greba subjektua aldatu da. Zaintza sistema iraultzearen ardura denok zeharkatzen gaitu, denok gaude interpellatuak, gizon eta emakumeak. Esan bezala, zaintza gai transbertsala da, denon bizitzari buruz hitz egiten ari gara, guztion ardura da eta, gainera, mugimendu feministak argi utzi du zaintzen borroka ez dela bakarrik emakumeen ardura.

Gizonezkoen parte hartzea zein izango da?

I. Berez, protagonismorik gabeko aktibismoa eskatzen zaie; subjektu aktibo lirateke, baina bigarren maila batean kokatuta. Lidergoa mugimendu feministak du, bermeak eta irizpideak jartzen dira. Mobilizazioetara deituta daude baina, esandakoa, bigarren maila batean. Eta, noski, egun horretan zaintzak beregain hartzea, eta sozializatzea deituta daude.

K. Oso interesgarria da bakoitzak bere pribilegioak errebisatzea, eta egun horretan eskubideak aldarrikatzeko besteoi aukerak emateko "zer egin behar dudana?" geure buruari galdetzea.

Greba antolatu beharra dago. Nola ari zarete horretan?

I. Euskal Herrian 2022ko Herri Akordio baten osatzea eman zenean, mugimendu feminista, eragile sozial eta sindikalekin elkarlanean egon gara. Komunezko ardatz batzuk badaude, eta ondoren eskualdeka antolatzen ari gara. Nafarroan, esaterako, eskualde bakoitza bere kabuz antolatzen ari da. Iruñerria alde batetik, eta Nafarroako landa eremuko eskualdeak bestetik, eta biak bat, uste dugulako hiri edo landa guneekekin amankomuneko

puntuak eman daitezkeela. **K.** Ibarrean, Sakanako mugimendu feministakoak gaude, talde eragile, ibarreko eta Nafarroako koordinazioan elkarlanean, eta,aldi berean, hainbat herritan asanblada mistoak egin dira;

Arakilen, Irurtzunen, Lakuntzan, Arbizun, Etxarri Aranatzen eta Altsasun martxan gaude. Baina helburua Sakana osora iristea da, sindikatuak ere elkarlanean ari dira, baita ezker mugimenduko taldeak ere.

Datuak

Egungo sistemaz

- 12.500 milioi ordu egiten dira zaintzan lan ez ordaindutan urtero.
- 2008tik ez dira zaintzarekin lotutako lanpostu formalak berreskuratu, asko eta asko suntsitu baitira gizarte zerbitzuetan, etxez etxeko zerbitzuan, haur eskoletan, zahar egoitzetan...

Adinduen egoitzak

- 65 urtetik gorako 100 pertsonako 5 egoitza plaza egotea gomendatzen du Munduko Osasun Erakundeak. Hori aintzat hartuta, Hego Euskal Herrian 7.733 plaza faltako lirateke.
- 71 egoitzetatik Nafarroan bi bakarrik dira publikoak.

Etxeko langileak

- Askotariko profilak daude. Kontratuen % 84,3 hitzezkoa da.
- %25ek kontraturik gabe egiten du lana etxeko zaintzan.
- Egoiliarak (24 orduz etxeetan, legeak ez du atsedenaldirik zehatzik ezartzen) %95-98an emakume migratu edo arrazializatuak dira, lautik bat egoera irregular administratiboan dagoena.

Garbitzaileak

- Feminizatutako beste sektore bat da, azpikontratazioa eta prekarietatea ematen dena.
- Kontratazio publikoetan 1.200 m² garbitu behar dituzte. Azpikontratuak ez dago zehaztuta eta askotan bikoitza egiten dute.

Senideen arteko zaintza ez ordaindua

- Emakumeen %70,5ek 10 ordu baino gehiago astez (asteburuan %90).
- Gizonek %57 eskaintzen diete senideen zaintzari (asteburuan %76).

Denboraren pobrezia

- Emakumeek askoz denbora libre gutxiago.
- Seme alaben zaintzan emakumeek 5,1 ordu pasatzen dituzte egunean eta gizonek 3,3 ordu.
- Etxeko lanetan emakumeek egunean 2,2 ordu sartzen dituzte eta gizonek 1,5 ordu.

CONSTRUCCIONES ALZATE S.L.

ALZATE ERAIKUNTZAK S.L.

Zubetia 21, Altsasu
Tel. 948 562 745 - Fax 948 467 600
www.construccionessalzate.com

EGURDIAN sutarako egurra

608 57 03 57

Txalaparta

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU



Ibarreko hamazapi tabernetan pintxo pote jasagarria dastatzeko aukera izanen da, tartean Pikuxarren. ARTXIBOA

Elikagaiak bota beharrean, berrerabili

Hondakin gehiago ez sortu eta egoera onean dauden elikagaien berrerabilera sustatzeko, Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak Pintxo Pote Jasagarria antolatu du. Tabernek dendek eta ekoizleek emandakoekin sortu dituzte pintxoak

SAKANA Sakana alimentariak emandako arto irina eta esne hautsa. Lacturaleren gazta erdiak. Altsasuko Amaya eta Ogiberri okindegien ogia. Irurtzungo Galarza harategiaren txerri gibela. Altsasuko Eroski supermerkatuaren haragi eta arrain izoztuak. Eta parte hartuko duten taberna batzuen

soberakinak. Osagai horiekin pintxo pote jasagarria eskaini zuten atzo Altsasuko Kaixo, Iru-bide, Gure, Lemik, Arkangoa eta Lezea tabernetan. Gauza bera egingen dute gaur Irurtzungo Pikuxar, Lakuntzako Sorgiñak, Kale Txiki eta Tximonena, Arbizuko eta Etxarri Aranzako kanpinak, Etxarri Aranzako

Iratxo, Derry eta Leku Ona, Urdiaingo Kaluxa eta Olatzagutiko Barandi tabernek. Guztira jakiak berrerabiltzeko hamazazpi esperientzia. Guztietan ere pintxo pote jasagarriaren kontzeptua ikustarazteko euskarriak izanen dira.

Eta horretarako amua Sakanako Mankomunitateko Honda-

kinen Zerbitzuak jarri zien taberna, dendari eta ekoizleei. "Egoera onean dauden elikagaiak berrerabiltzeak dakartzan onurez kontzientziatu nahi ditugu. Elkarrekin harremanetan jarri ditugu beraien produktuak trukatuta eta pintxo pote berezia eskain dezaten", azaldu du Olatz Garde Mazkieran hondakin teknikariak. Azaldu duenez, "ibarreko lehen sektoreko ekoizleei eta janari dendei proposatu genien beraien ekoizpena aztertzea eta janari soberakinak antzematea".

Horrekin batera, haiei eta ostalariei aprobetxamendu sukaldaritzaren berri eman zieten. "Sukaldaritzeta mota horrek soberakinak erabiltzen ditu plater bat egiteko. Edo normalean janaria prestatzeko erabiltzen ez diren landare baten zatiak, eta horrekin errezeta berri bat sortzen du". Gardek azaldu duenez, "praktika horrekin janaria alferrik galtzea saihesten da, eta, beraz, ingurumenarekiko jasangarriagoak gara. Izan ere, tokiko produktuak kontsumituz gas isuriak murrizten dira. Gainera, pintxo-potea baxera berrerabilgarrian zerbitzitzen da. Aldi berean, errezeta harrigarri eta berriak ezagutzeko aukera ematen digu. Eta, azkenik, hondakinak bereizten ditugu". Datu pare bat ere eman ditu Gardek: sakanadar bakoitzeko urteko 131 kilo elikagai alferrik galtzen dira. Horien %56 etxeetako elikagaiak dira".

Sustatzaileek jakinarazi dute, "kanpainaren ondorengo edizioetan pintxo lehiaketa bat egiteko asmoa dago, primerako epaimahai batekin, aprobetxamendu bazkariaren aste berezi baten barruan". Bitartean, ekimenarekin bat egin dutenei esker, sakanadarrek atzo eta gaur aprobetxamenduzko produktuekin egindako pintxoak dastatzeko aukera izan dute.

Proiektua

Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuaren egitasmo hori *Zu ere influenzerra* zara proiektuaren baitakoa da. Haren bidez kontsumitzaileei erakutsi nahi zaie hondakinei lotutako arazoak arintzen lagun dezakeela, beraien banakako ekintzen garrantziaz jabetu daitezela. Proiektuaren baitan hainbat ekimen egin dira: konponketa eta joskintza tailerrak, aprobetxamendu sukaldaritzari buruzko bideoak... Guztiek 35.206 euroko aurrekontua dute, Nafarroako Hondakinen Funtsak ordaindu duena, hondakindegira isurtzen diren hondakinengatik kobratzen den zergarekin sortutako funtsarekin hain zuzen.

"PRAKTIKA HORREKIN JANARIA ALFERRIK GALTZEA SAIHESTEN DA, JASANGARRIAGOAK GARA"

DUELA 25 URTE...



Herri arteko errepide berria

Sakanako Autobia (A-10) egitean errepide zaharra bigarren mailako errepide bihurtu zen. Azken horrek ibarra punta batetik bestera zeharkatzen zuen, Irañeta eta Uharte Arakil artean izan ezik. Sei hilabeteko lanen ondoren, azaroan despeditu zituzten errepide berria egiteko lanak. Porlanezko zorua zuen errepideak. Irintarrak kexu ziren herri sarreran jarritako bidegurutzeta arriskutsua zela, ezer ikusten ez zelako. Herria eta udala mugitzen hasi ziren.



Iruñerako dei eginez

Nafarroako hainbat gizarte eragilek 1080 orain ekimena sustatu dute. Haren helburua da gutxieneko pentsioak osatzea hilerio 1.080 eurokoak izan daitezten. Nafarroako Gobernuak hori 2024an egin ahal izateko, aurrekontuen legean horretarako propio bideratutako

partida bat izatea eskatzen dute. Eskaera bera Nafarroako Parlamentuko batzorde batean egin dute. Larunbatean, 17:30ean, Iruñeko Baluarteko plazatik manifestazioa abiatuko da. Altsasutik autoetan joateko 16:15ean estalpean elkartuko dira.



Eskola izandako eraikina eraberritzeko lanak hasita daude.

Hasita eskola berritzeko lanak

Eskola zaharren eraikina berritzeko lanak hasi dira. Lanak heldu den urteko udarako despedituta egonen dira. Kultur jarduerak eta bestelakoak egiteko bideratuko da. Parte hartze prozesu baten bidez eraikinaren barne araudia zehaztu nahi du udalak

ARBIZU
Azaroarekin batera hasi ziren Arbizuko eskola zaharra hartu zuen eraikina eraberritzeko lanak, eta heldu den agorrila akaberako despedituta behar dute. Ikastetxea izateari 2019an utzi zion, urte hartako irailaren 9an eskola berria mustu baitzuten. Arbizuko Udalak sustatuta, parte hartze prozesua egin zen 2021ean, eskola zaharrei eman beharreko erabilera zehazteko. Haren bidez arbizuarrak erabaki zuten kale Nagusiko 1. zenbakiko eraikina kulturara bideratzea. Eskola zenak 299 metro karratuko azalera du. Han areto handi bat eta bi gela txiki egingen dira. Eraikina ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, erakusketak, proiektzioak, kontzertuak eta beste hainbat ekintza eta bilera egiteko leku izanen da. Lan horietaz aparte,

sotoan gaur egun dauden egurrezko eta gasolioko galdarak kendu eta pellet galdara jarriko du udalak. Sotoaren gainontzeko espazioan, altuera txikia duenez, biltegi gisa erabiltzea aztertzen ari da udala.

Lanak egin bitartean, Arbizuko Udalaren asmoa da eraikinaren barne araudia landu eta adostea. Horretarako, parte hartze prozesua egingen du heldu den urtean. Haren metodologiaren eta egutegiaren berri aurrerago emanen du. Hala ere, bakarren batek dagoeneko ekarpenen bat egin nahiko balu

"JASOTAKO DIRULAGUNTZAREKIN LANEN %100 ORDAINDUKO DUGU, BEZ ZERGA SALBU"

partehartzea@arbizu.eus posta elektronikoko helbidera idatzi dezake.

Obra Noveleta enpresak du eta 330.000 euroren truke egingen du. Europar Batasuneko Next Generation funtseko Eraikin Publikoen Birgaitzea Bultzatzeko Programatik (Tokiko Pirep) dirulaguntza jaso du udalak. Francisco Javier Razkin Flores alkateak azaldu duenez, "jasotako dirulaguntzarekin lanen %100 ordainduko dugu, haiei dagokien BEZ zerga salbu". Razkinek nabarmendu duenez, "aldeia dago orain arteko dirulaguntzarekin. Dagoeneko dirua jasoa dugu. Badakigu ondoren lupaz begiratuko digutela, eta gauzak eskatuko dituztela. Baina orain arte dirulaguntzak lanak egin ondoren jaso ditugu".

Razkinek gogorarazi du udalak Nafarroako Gobernuari hiru lan



Hondakinekin arduratsu izateko deia

Udalak jakinarazi du herritar batzuek "hondakinekin duten axolagabekeriarekin kezkatuta" dagoela. Horregatik, "hondakinen erabilera arduratsua sustatzeko pauso batzuk eman" ditu. Batetik, auzokonpostagailuak kendu egin ditu, "erabilera okerragatik zabortege txikiak bihurtzeko zorian zeudelako". Bestetik, udalak gogorarazi du larrialdi gunea bi kasutan erabil daitekeela bakarrik: "oporretara joan behar garenean, hondakinik ez uzteko etxean. Edo garbiketa bereziren bat egin eta hondakina pilatzen zaigunean". Gaztigatu dutenez, "hura egunero erabiltzen duenik bada. Hondakinak jasotzeko etxez etxeko bilketa dago". Beraz, erabilera okerrak jarraitzen badu, udalak ez du baztertu larrialdi gunea ixtea. Hura erabili nahi luketenen giltza eskatu beharko lukete, goizetan udaletxeko bulegoan eta arratsaldetan liburutegian. "Horrela, erabiltzaileen erregistro bat egin eta erabilera zuzena dela ziurtatuko genuke". Jakinarazi duenez, Hondakin Zerbitzuko hezitzaile batzuk familia batzuekin hitz egitera joanen dira, erabilera egokiaren inguruko informazioa berriz emateko. Bestalde, inausketako hondakin organikoak Utzubar Ekogunera eraman behar direla gaztigatu du. Udalak uste du nahikoa bitarteko daudela hondakinen kudeaketa egokia egiteko. "Oinarria bakoitzaren ardura da: ahalik eta hondakin gutxien sortu, hura ondo sailkatu eta dagokionean atera".

egiteko dirulaguntzak eskatu zizkiola. "Alde batetik, udalaxteko bulego eta artxibategiko solairua birmoldatu nahi genuke, espazioa berrantolatu eta tokia hobe aprobetxatzeko. Izan ere, artxiboa txiki gelditu zailgulo, eta gaur egungo beharretara egokitu behar delako. Laguntza eskaera hori atzera bota digute".

Eta beste bi eskaerak erreserban utzi ditu gobernuak. Hau da, udalen batek bere laguntzari uko eginez gero, Arbizuko Udalak laguntza jasotzeko aukera luke. Erreserban dagoen

GOBERNUAK UDALARI DIRULAGUNTZA BAT UKATU DIO, ETA BESTE BI ERRESERBAN UTZI DITU

lan horietako bat kiroldegiko klimatizagailua berritzea da. Bestea, berriz, Fernando Urkia kaleko sareak eta zoladura berritzea da. Bestetik, alkateak jakinarazi du udaletxeko galdara izorratuta dagoela eta hura berritzeko pausoak ematen hasiak direla.

Etxebizitzak

Arbizuko Udalak eta foru gobernuaren Nasuvinsa enpresa publikoak hitzarmena egin zuten San Joan bidean alokairuko bost etxebizitzak eraikitzeke. Razkinek azaldu duenez, "udalak egin beharrekoa egina dago. Aurrera doa dena. Ongikoz, lanak hasi daitezke. Baina Nasuvinsak nahi duenean izanen da hori", azaldu du. Bestalde, gogorarazi du udalaren jabetza den Agonia etxea oraindik ere salgai dagoela. Argibideak, udaletxean.

Sakana Sarietarako zortzi hautagai

Proposamenak egiteko epea despedituta, sakandarrek gogoko hautagaitzei botoa emateko garaia iritsi da. Gutxienez bi hautagaitzaren aldeko botoa eta gehienez hiruren aldekoa eman daiteke azaroaren 20ra arte

SAKANA

Sakanako Sozioekonomia Behatokiak sustatzen du Sakana Sariak, aurten laugarren edizioa dutena. Haren bidez, ibarrean gizarte, ingurumen edo ekonomian eragin positiboa izan duen erakunde edo ekimen kolektiboak aitortu nahi dira, irabazi asmoa izan edo ez. Bi sari banatuko dira. Hautagai guztiak aztertu ondoren, Sari Nagusia Behatokiak kideek osatzen duten epai-


mahaiak emanen du. Sakana aipamen berezia, berriz, sakandarren botoen bidez erabakiko da. Sariketara zortzi hautagaitza aurkeztu dira. Gogokoena babes-teko www.sakanagaratzen.com/eu/ web gunean sartu behar da. Aurtengo berritasuna da boto bakarria beharrean bi edo hiru boto eman daitezkeela. Horretarako hilaren 20ra arteko epea dago. Sarituen berri azaroaren 23an emanen dute, Lakuntzan.



Done Jakue bidearen lagunak

Kultur elkarteak

2015az geroztik, Done Jakue bidearen lagunak Sakanako Done Jakue Bidearen berreskurapen prozesuan aitzindariak izan dira. 2022an Sakanako zatia Nafarroako bosgarren bidea gisa ofizialki onartua izateko sustatzaile nagusietako bat izan da elkarteak. Donejakue bidearen ezagutza, berreskurapena eta balioan jartzea sustatzeko asmoz sortu zen elkarteak. Helburuak betetzeko hainbat ekimen egin dituzte, esate baterako: ezagutza martxak, jardunaldiak, hitzaldiak, seinaleztapena eta ibilbide seinale mantentze lanak, webgunean zabaltzeko edukiak sortzea...



Haize Berriak banda

Musika elkarteak


Sakanako musika banda da Haize Berriak, ibarreko bost musika eskolatan hezitako musikariek osatutako musika elkarteak da. Bere jardura Sakanako herri eta kontzeju guztietan garatzen da, bertako hainbat elkarterekin elkarlanean. Ibarreko berezko folklore musika eta herri doinuak berreskuratzen, kontserbatzen eta zabaltzen lan egiten du. Horretaz aparte, Sakana osoko gizarte eta kultur arloko kohesio tresna aktiboa izan nahi du Haize Berriak bandak. Joan zen urtean ibarreko musika elkarteak mende laurdeneko ibilbidea ospatu zuen.



Josefina Arregui fundazioa

Suspertze funtzional eta kognitiboko etxez etxeko geriatría zerbitzua

Beren etxeetan artatuz, hainbat arazoarengatik gizarteratzeko arazoak dituzten adineko pertsonen eguneroko jardura normalizatua berreskuratzeko aukera ematen zaie. Pertsona horiek ezin zuten Fundazioak eskaintzen zituen zerbitzuetara sartu, eta, beraz, isolamendu, mendekotasun eta abarreko bide batean zeuden. Fundazioak erabaki zuen pertsona horien hurbiltzea, haien etxeetara, benetan behar gaituzten lekuetara.



Pikuxar elkarteak

Euskararen sustapenerako elkarteak


Pikuxar elkarteak urteak daramatza herrigintza, kulturgintza eta euskararen alorrean lanean eta Irurtzun inguruan nahiko erreferentzia bilakatu da bertan antolatzen dituen hainbat jarduerengatik (gau beltza, kontzertuak, irteerak, erakusketak, tailerrak...). Bestetik, 2021ean jauzi kualitatiboa egin zen, auzolaneko egokitutako erakin berrira aldatu zirenean. Ondorioz, herriaren erdialdeak beste egitura bat du, plaza berri batekin eta inguru irekiago batekin. Honek bazkide gehiago izatea eta herriaren elkartaren eragina handitzea ekarri du.



Sakana Harrera Harana

Errefuxiatuei laguntzeko boluntarioen taldea

Elkar ezagutzen ez zuten sakandarrek sortu zuten taldea 2017ko hasieran. Taldearen helburua errefuxiatuei laguntzea da. Orduetik, Kiosen, Idomenin, Lesbosen eta beste hainbat tokitan errefuxiatuei laguntzen izan dira, mugak irekitzeko karabanetan parte hartu dute, hitzaldiak, erakusketak, kontzentrazioak eta manifestazioak antolatu ditugu, Sakanako hainbat herritan egiten diren munduko arrotzetan parte hartu dute, mozioak aurkeztu dituzte udaletan, errefuxiatuen alde egin diren ekitaldietan parte hartu dugu. Anitzarteanekin elkarlan estua du.



Sakanako musika eskolak

Udal kultur zerbitzua


Sakanan bost musika eskola daude: Irurtzunen, Lakuntzan, Etxarri Aranatzan, Altsasun eta Olatzagutian. Eskola horietako bakoitza dagokion udalaren mendeko administrazio izaerako erakunde autonomoa da. Eskola horiek musika eta kultura sustatzeko lana egiten dute, musika irakaskuntzaren bidez, eta batez ere gazteengan jartzen dute fokua. Haien jarduna ez da ikasgelako lau pareten artean gelditzen, eta kalera edo eszena tokietara ere eramaten dute. Hainbat ikasle musika ikasketetan sakontzera kontserbatoriora bideratu dituzte.



Zabalarte mendi elkarteak

Mendi elkarteak

Herritarren artean mendizaletasuna sustatzeaz aparte, Lakuntzako Zabalarte mendizale elkarteak herriko ondarea berreskuratzea du helburuetako bat. Horren adibide da auzolanaren bidez herri lurretan dauden ganbelak identifikatu eta berreskuratzeko proiektua. Proiektu horren bidez, hainbat alderdi balioesten dira, hala nola euskara, toponimia eta natur baliabideak, herritarren parte hartze irekiarekin, ingurumen eta kultura sentsibilizazioen sakonduz.



Ziordia Running taldea

Kirol eta elkartasun proiektua

Lau ziordiarrek "Ziordia running" izeneko herri lasterketa antolatu eta bultzatu zuten 2014an. Harrezkero, gero eta ospe handiagoa hartu du lasterketak Espainian, eta 500 lagun inguruk parte hartu dute. Hainbat elkartasun jardura sustatu dituzte. Esaterako, lasterketan izena emateko elikagaiak biltzea ondoren Paris 365 jantoki eta biltegi solidariora emateko. Hala, 1.500 kilo elikagai bildu dituzte. Gainera, urteotan elkartasun ekimenendako 80.000 euro baino gehiago jaso ditu.



Lizerratarra San Martin ermitara joaten. ARTXIBOA

Sanmartindarrak Lizarragan

Aurten San Martin eguna larunbarekin bat egiten du. Lizarragako San Martin kofradiak bere eguna ospatuko du goizean goiz hasi eta ordu txikietaraino. XVIII. mendean sortutako kofradia eta 29 kidez osatuta dago

Alfredo Alvaro Igoa LIZARRAGA

Irurako bidea hartuta, Lizarragatik kilometro eta erdira dago San Martin ermita. Inguru hartan garai batean herri bat, despopulatu zen herri bat zegoen, eta Rafael Carasatorre Vidaurrek *Barranca-Burunda* liburu ederrean Urkizu izan daitekeela dio. Ermitako atea larunbatean 12:00etan zabalduko da, titularraren kofradeak hartzeko. Aurreko egunen batean ere zabaldu da, sanmartindarren anai buruak larunbateko elizkizunerako behar bezala prestatuta utzi baitu.

Lizarragako San Martingo anaiak Azi iturri elkartearen elkartzen dira lastaileko azkeneko larunbatean, 19:00ak aldera. Topaketan kofradiaz eta San Martin egunerako lotu beharrekoak izaten dituzte hizpide. Ondoren, 21:00ak aldera, haragi gisatua eta gaztainak afaltzen dituzte. Anai buruak eta haren laguntzailea arduratzen dira sanmartindarren festaren antolaketaz. Ardura horiek urtero aldatzen

dira. Aurten anai burua Xabier Ezkerra Larraza da eta laguntzailea, berriz, Ander Beltza Goldarazena. Azken hori anai buru ardura hartuko du larunbatean eta beste sanmartindar bat laguntzaile izendatuko dute. Aukeraketa hori zerrenda bati jarraituz egiten dute.

Eguna

Sanmartindarrak elkartearen elkartuko dira larunbatean, 09:30ak aldera. Gosaria prestatuko dien sukaldaria izanen dute, eta hari anai buru eta laguntzaileak lagunduko diote gosaria prestatzen. Menua: tripotak eta barrukiak. Majo gosaldia ondoren, kofradeak elizara sartuko dira. Han anai buruak kandelak batzuk prestatu izaten dituzte. Haiek hartu eta, oinez, ermitarako bidea hartuko dute 11:30ean. Kandelak piztuta eramatea da kontua, baina haizeak gogoz jotzen duenez, itzali eta ermitara iristean, atzera ere, pizten dituzte. Elizkizuna 12:00etan hasiko da.

Meza ondoren, sanmartindarrak Lizarragara bueltatzen dira, zehazki anai buruaren etxera. Han apaizak, lehenik, etxea bedeinkatu egiten du, eta ondoren, etxeko hildakoen alde otoi egiten du. Anai buruaren etxekoak despedituta, trikitilari eta panderojolea lagun, sanmartindarrak bazkal garaia iritsi arte poteoan ibiltzen dira.

Azi iturri elkarteko mahaira esertzen direnean eguneko kontuak egin, bakoitzak dagokiona ordaindu eta anai izateko eskaerarik balego hura aztertuko lukete. Egin beharrekoak despedituta, urtero errepikatzen den menua izanen dute zain: urdaiaz-pikoa, zainzuriak eta tripotak sarrera gisa, zopa, legatza eta

SANMARTINDAR IZATEKO KOFRADIARI ESKAERA EGIN ETA KIDEEK AZTERTUKO DUTE

txuleta edo txerrikumea. Postre garaian ez dute hutsik egin Lakuntzako Txindoki gozo denakoa hostopil tartak. 15:00etan hasten den bazkaria anai buruaren eta laguntzailearen senideek zerbitzatzen dute.

Bazkal burukoa luzatu eginen zaie kofradeei, baina 18:00ak aldera, kalera atera, eta musikarien doinuak lagun herrian barna kalejira eginen dute. Beraien ibilbidean San Martingo anaiek hiruzpalau kofraderen etxeetan geldialdiak eginen dituzte. Nahi duen kofradeak egiten du bere etxera joateko gonbidapena. Haietan jan-edanak eskainiko zaizkie. Herrian barnako kalejira elkartearen despedituko dute, afaria prestatzeko garaian. Eta musika lagun, ordu txikiak arte luzatuko da sanmartindarren festa. Garai batean ospakizuneko gosaria eta bazkaria anai buruaren etxean egiten ziren.

Historia luzekoa

Lizarragako San Martin kofradia XVIII. mendekoa da. Hala jakinarazten du kofradiaren akta liburuak. Hura emantzaileak zaintzen du urtean zehar. Liburuan bertan San Martin ospakizunaren berri jasotzen dute urtero: zenbat kofrade izan ziren, nola pasa duten eta beste. Urtean zehar sanmartindarren bat hiltzen bada, kofradiak haren omezeko meza ordaintzen du. Bestalde, orain arte, hiltzen den kofradearen orde haren seme nagusia sartzen da kofradian. Hala nahi badu, behintzat. Sanmartindar izateko beste modu bat kofradiari eskaera egitea da. Eskaera jasota, kofradeak biltzen diren egunean, San Martin aurreko bilkuran edo sainduaren egunean eskaera aztertu eta onartu edo ez erabakiko dute.

Kofradia gaur egun gizonezkoek osatuta dago. Haren liburuan inon ez da ageri emakumezkoak ezin direla sanmartindarrak izan. Beraz, emakumezkoen batek kofrade izateko eskaera egiten badut, sanmartindarrek beraien batzarrean beste edozein eskaera bezala aztertuko dute. Kofradiatik jakinarazi dutenez, oraindik halako eskaerarik ez dute izan.

Ermitari dagokionez, anaiak arduratzen dira haren mantenuaz. Aspaldi obra egin zuten eta "nahiko ongi" utzi zuten. Erretaula errenazentista da, XVI. mendean bukaerakoa.

FESTAK

IRURTZUN

SAN MARTIN FESTAK

AZAROAK 10 Ostirala

18:30 Gozogintza lehiaketa eta dastaketa, Erga-Larreak elkartearen.
23:00 DJ Txabas, Larrazpin.
Larrazpi Gazte Elkarteak antolatuta.

AZAROAK 11 Larunbata

10:00 Dianak.
11:30 Erraldoi eta buruhandien konpartsa.
14:15 Jubilatuen bazkaria.
Ondoren, dantzaldia.
16:30 Mus txapelketa, Iratxo elkartearen.
Izena ematea 16:00ak arte.
17:30 Puzgarriak, Foru plazan (euriarekin, frontoian).
18:30 Matraza elektro txaranga, Foru plazan (euriarekin, Barazkigunen).
19:00 Haurrendako txokolate jatea.

21:30 Zezensuzkoa.
22:00 DJ Mike Villas, DJ Ara-Kill eta DJ Squirrel – Basfood Krew, Larrazpi Gazte Elkarteak antolatuta, Larrazpin.
23:00 Diskofesta: DJ Oixani, Foru plazan (euriarekin, Barazkigunen).

AZAROAK 12 Igandea

10:00 Dianak.
10:30-14:30 Artisautza azoka, Foru plazan (euriarekin, frontoian).
18:30 *Nadie está lejos* antzezlanaren emanaldia, Foru plazan (euriarekin, Barazkigunear).



Artisautza azoka izanen da igandean.

LIZARRAGA

SAN KLEMENTE FESTAK

AZAROAK 17 Ostirala

20:00 Tripoteue: Lizarragako ardi tripota, musikaz eta Lizarraga Kantuz-ekin alaituta, frontoian.
22:00 Herri afaria, Azi-Iturri txokoa.



Liburuaren aurkezpenean senideekin batera Etxarri Aranazko alkatea izan zen. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

Antonio Goñi, polizia frankistaren biktima

Erakunde armatuekin zerikusirik ez zuten eta Frankismoko poliziak hildako hiru pertsonen berri ematen duen Aranzadi zientzia elkartearen liburuan Antonio Goñi Igoa etxarriarraren kasuaren berri ematen da

ETXARRI ARANATZ

Aranzadi Zientzia Elkarteak, UPV/EHUko laguntzarekin, 1970 *Modos de matar y morir: Víctimas mortales en Gipuzkoa* liburuaren aurkeztu zuen lastailaren 26an. Javier Buces Cabello Historiako doktoreak liburu horretan frankismoko azken urteetako giza eskubideen urraketak ditu hizpide. Zehazki, 1970ean Jose Miguel Andueza Elizalde, Roberto Perez Jauregik eta Antonio Goñi Igoak errepresio frankistaren ondorioz jasan zuten bizitzeko eskubidearen urraketa jasotzen du. Azkenak, etxarriarra, polizien kalabozoetan egon ondoren bere buruaz beste egin zuen.

Bucesen iritzi, liburuaren protagonistak "bigarren eta hirugarren mailako biktimak dira". Hiruren moduko hilketak "demokrazia bermerik eta giza eskubideekiko errespeturik ez duten sistema politikoetan gertatzen dira". Gaineratu zuenez, "Frankismoak, hasieratik aka-

berara, Estatua erabili zuen, eta bertako funtzionarioez baliatu zen hainbat eratan hiltzeko". Hala ere, "badago heriotza horien guztien izendatzaile komun bat: zigorgabetasuna. Diktaduratik bizirik iraun zuen zigorgabetasuna, Trantsizioa deiturikoak ekarri zuen 'ahantzuraren itun handiari' esker". Nabarmendu du liburuko hiru protagonistak ez direla "argazki ofizialean agertzen. Hamarkadetan ezkutatatu nahi izan den historia horren zati dira, isilarazi nahi izan den memoria horren zati". Bucesek azaldu zuenez, liburuak historia aparta, "ahaztutako biktimen eta haien senideen memoriaz eta aitorenaz ere hitz egiten du".

"BADAGO HERIOTZA HORIEN GUZTIEN IZENDATZAILE KOMUN BAT: ZIGORGABETASUNA"

Liburuaren egiteko, Bucesek hainbat artxibo arakatu ditu. Jasotako informazioa testuinguruan jarri eta kontrastatu du. Azken horretarako ere hildakoen familiengana jo du. "Historia lanetik atera eta emaitzak humanizatu nahi baditugu, senideen testigantzak, etxean gordetzen diren paperak oso garrantzitsuak dira". Aurkezpenean liburuaren egilearekin batera, Goñiren iloba Lourdes Salsamendi egon zen. Hark esan zuenez, "nire familiak bazekien Antoniok bere buruaz beste egin zuela ezin izan zuelako eraman pasarazi zioten guztiaren zama".

Aurkezpenean Etxarri Aranazko alkatea parte hartu zuen, udalak irudiak eta dokumentuak utzi baititu liburuaren egiteko. Maria Saez de Albeniz Bregaña alkatea memoria lantzeko eta "ahaztuen oroimenaren alde" lan egiteko asmoa azaldu zuen. "Egia, justizia eta erreparazioa" aldarrikatu zituen, "bizikidetzan aurrerapausoak emateko".



Adinduen egoitzara iristean harrera beroa egin zieten peñakideei. UTZITAKOIA

Urtero bezala, Patata operazioak Sakanan uzta jaso zuen

Behartsuen haurrideak kongregazioko asiloarendako izan ziren jasotako jakiak eta dirua

SAKANA

Iruñeko Algara peñako kideek Urdiain eta Satrustegi artean jaki bilketa egin zuten igandean. Patata Operazioa izeneko ekimenaren bidez tona bat patata, 500 kilo kuia, sagarrak, intxaurrak, tipulak, porruak, zerbak, txistorra eta bestelako jakiak ere jaso zituzten. Baita 430 euro ere. Ekarpina egin zutenek Behartsuen Haurrideak kongregazioaren egutegia jaso zuten opari.

Peñako kideak megafonia bidez, karrakari eraginez eta bozina joz haien iritsieraren berri eman zuten herrietan. Uharteko Arakilen ez zuten halakorik egin behar izan, Donibane jubilatutako elkarreko kideek iruindarren lana egin zutelako goizean goiz, eta, beraz, peñakideek ubertearrek jasotako zuzenean hartu, besterik ez zuten egin. Elkarlan horregatik oso eskertuta daude peñakideak, "dagoeneko peñakideak dira".

Sei hamarkada

Julen Zelaia Zazu Iruñeko Algarako peñako kideak nabarmendu zuenez, "garrantzitsuenak emaileak dira, sakandarrak, ahal duten neurrian jakiak edo dirua ematen dutenak". Gogoratu zuen kongregazioaren asiloan baliabiderik ez duten adinekoak bizi direla. Zelaia azaldu zuenez, Kongregazioak Iruñeko Gipuzkoa etorbidean duen egoitzaren parean jarri zuten hitzordua 08:00etan. Handik Urdiainerantz abiatu ziren.

Etxarri Aranatzeko gosaldia ondoren segitu zuten bilketarekin. 16:00ak pasata iritsi ziren Iruñera. "Aspaldi 22:30ean iristen ziren. Beste garai batzuk ziren". Esaterako, XX. mendeko 70. hamarkadan 80.000 kilo patata ere jaso zituzten. Orduan Sakanakoaz aparte beste ibilbide batzuk ere egiten zituzten. "Gaur egun herrietan jendeak industrian lan egiten du eta oso baratze gutxi lantzen dira".

Patata operazioak aurten 60. edizioa bete du. 1962an hasi zen eta ordutik bitan besterik ez da eten: egoitza tokiz aldatzean eta 2021ean, pandemiagatik. Azaldu duenez, "hasieran Anaitasuna peña aritu zen. Baina jarraitzeko jenderik ez zuten eta lekukoa pasa zigun. Ordutik Iruñeko Algarakoak ari gara bilketa egiten". Zelaia 41 urte darama Patata Operazioan parte hartzen, 21 urterekin aritu zen estreinakoz jaki bilketan.

Zelaiaz aparte, igandean ere lanean izan ziren Fernando Setoain, Jon eta Eneko Flamarique Benjamin Rekarte eta Txaro Uharteko peñakideak. Haiekin batera egoitzako langilea den Migel Gaztelu eta kamioia gidatu zuen Gabriel Martinez ere etorri ziren.

"GARRANTZITSUENAK EMAILEAK DIRA, AHAL DUTEN NEURRIAN JAKIAK EDO DIRUA EMATEN DUTENAK"

PALETA GOMA Sakanako XIX. Pala Txapelketan, izena ematea zabalik

Aurten hemeretzi urte beteko ditu Sakanako Mankomunitateak bestelako entitateen laguntzarekin antolatutako Sakanako Pala Txapelketak. Emakumezkoen txapelketa bi kategoria nagusietan jokatu da. Batetik, Elite mailako eta Lehenengo mailako txapelketa jokatu da, eta bertan Euskal Herriko palista onenak lehiatu dira. Bestetik, Gaztetxoek mailako txapelketa egongo da jokoan, eta azken honetan makina bat azpikategoria jokatu dira.

Azaroaren 24tik abenduaren 23ra jokatu da txapelketa, eta izena ematea zabalik dago Mankomunitatearen Kirol Zerbitzuan (kirolak@sakana-mank.eus).

PILOTA Gazteen Lau eta Erdiko final zortzirenak, Uharte Arakilen

Guillermo Mazo Memorialaren edo Nafarroako Gazteen Lau eta Erdiko Txapelketaren final zortzirenak jokatu dira azaroaren 14an, asteartea, Uhartan (18:00). Sanchezek (Oberena) Barberena (Ultzama) izango du aurkari; Urmenetak (Zugarralde) Okiñena (Ultzama); Rekaldek (Oberena) Antimasberes (Lagunak); eta Zabaletak (F. J.) Santesteban (Beti).

Sakanako kirolaririk onenak hautatzeko tartea

KIROLDEGIA Sakanako Mankomunitateak 2022 eta 2023ko kirolari sakandar onenei aitortza egingo die, hainbat adin tarte eta modalitateetan. Sakandarrei euren proposamenak egiteko eskatu die Kirol Zerbitzuak, azaroaren 24ra arte

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Sakanako Mankomunitateak Sakanako kirolaririk hoberenak sariak banatzen ditu bi urtean behin. Azkeneko saritze ekitaldia 2021ean izan zen, Olaztin, pandemia garaian. Aimar Tadeo Arkauz, Nahia Imaz Perez, Igor Arrieta Lizarraga, Irati Igoa Sesma, Josema Urrestarazu Zabaló, Haizea Ramirez de Alda Pozueta, Bargagain Taekwondo kluba, Triku Trail kluba, Imanol Arregi eta Ioseba Fernandez izan ziren sarituak.

Azaroaren 24ra arte

Aurten 2022 eta 2023 urteko kirolari hoberenak izendatuko ditu Mankomunitateak, ondoko kategorietan: 35 urte baino gehiagoko gizonezkoak, 35 urte baino gehiagoko emakumezkoak, 18 urte baino gehiagoko gizonezkoak, 18 urte baino gehiagoko emakumezkoak, 18 urtez azpiko gizonezkoak, 18 urtez azpiko emakumezkoak, kirol talderik onena eta euskara



Sakanako kirolari hoberenen azken ekitaldia Olaztin egin zen, 2021ean, pandemian.

gehien bulkatu duen taldea. Epaimahaiak, hala erabakitzen badu, bi aipamen berezi eman ditzake.

Epaimahaiak aukeratu dituzten kirolari hoberenak, sakandarrek egindako proposamenak aztertu eta gero. Edozein interesatuk

egin ahalko ditu proposamenak, azaroaren 24ko eguerdiko 12:00ak arte, Sakanako Mankomunitatean (kirolak@sakana-mank.eus) eta Altsasuko Kirol Zerbitzuan. Proposatutako hautagaien curriculum gaineratu beharko da.

FUTBOL PREFERENTEA

8. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Itaroa Huarte B- Altsasu **0-3**

SAILKAPENA
PREFERENTEKO 1. MULTZOA
1 Valle de Egües B **18**
6 Altsasu **15**

HURRENGO JARDUNALDIA
AZAROAK 12, IGANDEA
17:45 Valle de Egües B- Altsasu (*Sarriguren*)

Altsasu, liderraren kontra

Azken bi porrotak ahaztu nahian dabil Altsasu. Baina arerio zailaren kontra aritu beharko du, Valle de Egües liderraren kontra. Lidergoa dago jokoan.

Zaldia, Elomendiko liderra

Elomendiko Futbol Txapelketako zazpigarren jardunaldian Arakilgo Zaldia Talleres Goñik 2 eta 10 hartu zuen mendean Asdefor. Arakildarrak liderrak dira (8 puntu).

EMAKUME PREFERENTEA

7. JARDUNALDIKO EMAITZA
Idoya - Altsasu **5-0**

SAILKAPENA
EMAKUMEEN PREFERENTE MAILA
1 Tudelano **17**
9 Altsasu **1**

HURRENGO JARDUNALDIA
AZAROAK 12, IGANDEA
18:15 Univ. de Navarra- Altsasu (*Iruñea*)

Altsasu, saririk gabe

Oteizatit puntu gabe itzulita, Altsasu OPUS-eko taldearen kontra lehiatuko da.

FUTBOL ERREGIONALA

6. JARDUNALDIKO EMAITZA
Berriozar - Etxarri Aranatz **1-1**
Lagun Arteak atseden jardunaldia

SAILKAPENA
ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA
1 Mutilbera C **15**
3 Etxarri Aranatz **11**
8 Lagun Artea **7**

AZAROAK 12, IGANDEA
12:15 Ardoi B- Etxarri A. (*El Pinar 1*)
16:00 Lagun Artea - Asdefor (*Zelai Berri*)

Etxarri, ongi

Etxarri Aranatzek Berriozarren kontra bana berdintzea lortu zuen eta puntu gozoa bildu zuen zakurako. Ardoi B-ren kontra hirugarren postuari eusteko erronka du.

Lagun Arteak Asdefor hartuko du

Lagun Arteak atseden jardunaldia izan zuen. Igandean, etxean, sailkapenean azkena den Asdefor hartuko du.



Dantzaleku, martxan

FUTBOLA Dantzaleku kirol guneko futbol zelaiko belar sintetikoak aldatzeko lanak despeditu dira. Astelehenean Altsasu Kirol Elkarteko futbol taldeak normaltasunez ari dira entrenatzen, eta igandean ere bi futbol partida jokatu ziren. Asteburu honetan, eta hemendik aurrera, makina bat partida hartuko ditu Dantzalekuk, orain arteko partida guztiak kanpoan jokatu baitira. Aurki

egungo argiteri proiektoreak LED argiengatik ordezkatu dira, eta kendu den belar sintetikoaren zati bat Altsasuko goiko zelaian jarriko da, futbol zazpirako zelaia egiteko. Obren aurrekontua 298.961,46 eurokoa da, Mondo Ibericak egin ditu, eta Altsasuko Udalak 253.589 euroko diru laguntza jaso du Nafarroako Gobernutik eta Nafarroako Kirol Institututik.



Amaiur Ginea, Joseba Aldaz, Eneko Otsagabia eta Odei Juango, igandean Beriainen. UTZITAKOIA

Beriaindik Aconcaguara

MENDIA Eneko Otsagabiak, Amaiur Gineak, Joseba Aldazek eta Odei Juangok abenduaren 1ean hasiko dute Aconcagua (6.962 m) igotzeko abentura handia. Andeetako mendi mitikoaren esperientzia bizitzeko "irrikaz" daude

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Abenduaren 1ean Sakanako laukote batek hegazkina hartuko du Madrilen, Atlantikoa gurutzatu eta aspaldiko ametsa gauzatzeko: Argentinako Mendoza probintziako Aconcagua (6.962m) mendi mitikoa igotzeko esperientzia bizitzea. Eneko Otsagabia Letamendia lantzarrek, Amaiur Ginea Berastegi arbizuarrak, Joseba Aldaz Lopez de Goikoetxea olaztiarrak eta Odei Juango Valera lantzarrek antolatutako Beriain Akonkagua Sakandar Mendi Espedizioa 2023 martxan dago.

Eneko Otsagabia Letamendiak aitortu duenez, "aspalditik" zuen buruan Aconcaguara joatea. "Lagun batek eta biok Aconcaguako espedizioa martxan jartzea erabaki genuen, eta hariak mugitzen hasi ginen. Bidean Amaiur Ginea, Joseba Aldaz eta Odei

Juango batu zitzaizkigun, baina hara nola diren kontuak, azkenean hasierako lagun hori ez da etorriko".

Halako saltsan sartzeko, ez dira nolanhiko mendizaleak. "Orain arte ez gara horren mendi altuetan ibili, baina batzuek gehiago, beste batzuek gutxiago, laurok Alpeetan ibili gara. Nik Kilimanjaro (5.895 m) igo nuen 2017an, eta gutxi gorabehera halako espedizio baten atzean zer dagoen badakit. Hau beste pauso bat da, ia 5.900 metrotik ia 7.000 metrora beste espaloi edo eskailera bat badagoelako,

**"ACONCAGUAKO
ESPERIENTZIA
BIZITZEA, HORI DA
HELBURUA"
ENEKO OTSAGABIA**

baina badakigu gauzak nola egin behar diren. Ez genekiena dakitenei galdetu diegu, esperientziadun ezagunak baititugu, eta espedizioa prestatzen ari garela ikasi dugunarekin, aurrera".

Urtebete

2022an hasi ziren beharrezko informazioa lortzen eta beharrezko tramiteak egiten. Aconcagua parke naturala da, Aconcagua parke probintziala, hain zuzen ere. "Bertan sartzeko aseguru behar duzu, zerbait gertatuz gero helikopteroa bidaliko dutela bermatzen baitu, eta dagoeneko kontratatuta dugu. Parke naturalean sartzeko baimena eskatu beharra dago baita ere, nahikotxo balio duena. Baimena eskatuta dugu, Mendozako gobernuan, 25 eguneko epekoa. Eta bidaiaren lotuta dugu, jakina".

Abenduaren 1ean hegazkina hartu eta Txilera iritsiko dira, Santiagora. Hamabi orduko bidaiaren izango da. "Mendozan aireportua dago, baina bertara iristeko bidaiaren bi eskala egin behar genituen, eta bidaiaren luzeagoa eta garestiagoa zen. Santiagon lur hartu, autobusean igo, eta zortzi orduan Mendozara iritsiko gara". Abenduaren 4an Los Penitentesera heldu, lo egin, eta abenduaren 5ean Aconcaguako parkean sartuko dira. "Orduan hasiko da benetako abentura".

Pisua, mando gainean

Aconcaguara, ahal dela, euren kabuz igo nahi dute. "Nahi izanez gero, gidaria kontratatu daiteke, eta pixka bat ordainduta pisua oinarritzko kanpamendura eramaten laguntzen duten zamaketari antzekoak baita ere. Baina guk ez genuen hori nahi. Ahal dugun guztia guk egitea nahi dugu, espedizioa gure baliabideekin aurrera ateratzea. Baimenaren kudeaketan laguntzeko zerbitzua kontratatu genuen, eta kontratu horren barruan zama oinarritzko kanpamendura igo ahal izateko mando bat dagokigu. Beraz, pisu handiena, elikagaiak eta bestelakoak, mandoak eramango ditu. Hortik aurrera, guztia gure kontu". Elikagaiak eta ura Argentinan erosiko dituzte.

Aconcaguako espedizioa, arazorik ez badago, hamabost egunetan egin daiteke. "Hamalau hamabost egun kalkulatu dira, baina guk, badaezpada, parkean egoteko 25 eguneko baimena eskatu dugu. Hainbat faktore gerta daitezke: eguraldi txarra, altuerari aklimatatzeko arazoak... Uste dut ez zaigula horrenbeste kostako, baina, luzatzen bada, ez dago arazorik".

Altuerara egokitu

Aconcaguako parkean sartu eta lehenengo lana altuerara egokitzea izango da. Horretarako, gorputza gehiegi ez estutu eta ongi hidratatzea ezinbestekoak dira. "Esan digutenez, Aconcaguan lasai ibili beharra dago.

**"URRUTI ZIRUDIEN,
BAINA HIRU ASTETAN
BAGOAZ. ORDUAN
HASIKO DA ABENTURA"
ENEKO OTSAGABIA**

Oinez ibiltzen garen tartean, geldi ibili behar gara, gorputza gehiegi ez azeleratzeko eta pultsazioak ez igotzeko. Lasai ibili, eta ongi hidratatu. Horrela askoz errazagoa omen da ongi aklimatzea. Kilimanjaron ere hala egin nuen. Azkeneko astean suabeago entrenatzeko esan digute, garrantzitsuena bertan palizarik ez hartzea delako".

Pirinioetara, sarri

Mendira joanez ari dira entrenatzen. "Motxilan pisua sartu, eta mendira. Pirinioetara nahikotxo joan gara". Norberak bere lana eta bizitza du, eta ezin dira nahieran elkartu. "Beraz, tarteka elkarrekin joaten gara entrenatzera joateko, baina gehiengotan norberak bere kabuz entrenatzen du". Sasoiari dagokionez, azken urtean zenbait arazo izan dituzte, menisko ebakuntzak eta infiltrazioak tarteko, "baina orain ongi gaude. Laurak ongi entrenatzen ari gara, eta sasoiarekin gaude". Dena den, jakitun dira altuerak ez diela guztiei berdin eragingo. "Kontu handia izan beharko dugu horrekin. Agian oso indartsu iritsi gaitzke, baina altuerarengatik ongi ez egon. Pixkanaka ikusi beharko dugu. Ildo honetan, laukoa talde polita da. Bat ez bada altuerara ongi egokitu, beste bat jaitsi daiteke berarekin egotera. Halako egoerak aurre egiteko abantaila da".

Esperientzia bizi

Laukotea "oso animatuta" dago, data gerturatu ahala "pozik eta gogotsu. Ez dut inor bereziki kezkatuta ikusten". Helburua oso argi dute: Aconcaguako esperientzia bizitzea. "Estatistikoki laurak goraino igotzea zaila da. Horren jakitun gara. Agian espero ez ditugun faktoreengatik ez dugu lortzen, baina hori ez da gure helburu nagusia. Guk hango esperientzia bizi nahi dugu: oinarritzko kanpamenduan egon, handik igoera planifikatu, eta, ahal bada, gailurrera iritsi. Lortzen badugu, bikain; baina, bestela, esperientzia hori ere biziko dugu: hotza pasatzea, buruko minak izatea, sufritzea... espedizioaren parte direnak. Aconcaguako espedizioeko esperientzia bizi nahi dugu, mundu hori barrutik ezagutu".

Kanpamenduak

Aconcaguan, oinarritzko kanpamendua 4.350 metrotan dago eta

Plaza de Mulas deritzo. Beste kanpamenduak Plaza Canada (5.050m), Nido de Condores (5.560m), Berlin edo Colera (5.900m) eta Independencia (6.300m) dira. Altuerari egokitzeko, lehenik eta behin Cerro Bonete mendia igotzeko asmoa dute sakandarrek. Ondoren ekin diote Aconcagua igotzeari. "Normalean jendeak oinarriko kanpamenduaz gain beste bi kanpamendu erabiltzen ditu gailurrera iristeko. Guk oraindik ez dakigu zein erabiliko ditugun; eguraldia eta unean uneko faktoreak kontuan hartuta erabakiko dugu. Ziurrenik Nido de Condores eta Berlin izango dira, baina bertan erabakiko dugu".

Aconcagua, mendi hotza

Abenduan neguan sartuko gara Sakanan, baina Argentinan uda izango da. "Laurondako erraza goa litzateke gure udako oporrak Aconcaguara joateko baliatzea. Baina orduan han negua litzateke, eta ez genuen aparteko arriskurik hartu nahi. Beraz, zubi forala eta Gabonetako oporrak baliatuta, lantokietan orduak aurretik sartu edo eskatu ditugu, eta hilabetea osatu dugu".

Nahiz eta uda izan, altuera horretan, prezipitazioak, baldin badaude, elurrezkoak izango dira. "Aconcaguan haize handia egoten da eta horrek mendia garbitu egiten du. Horregatik, baldintza normaletan ez da mendi oso elurtsua. Baina egiten badu, elurra izango da eta elurretan arrastoa egin beharko dugu". Horregatik material egokia eramango dute. "Kranpoiak, kaskoa, elurretan lotuta joateko soka, pioleta eta neguko arropa ona emango dugu, oso mendi hotza dela esaten baitute".

Berriain Aconcagua espedizioa atzera kontuan dago. "Urruti ikusten genuen, baina hiru astetan bagoaz". Lau mendizaleak kontentatu daude, eta senitartekoak eta lagunak "pozik, baina pixka bat kezkatuta, aldi berean. Badakite mendia gustuko dugula eta esperientzia badugula, horrek lasaitzen ditu. Itzultzen garen bitartean, berdina zaie beste guztia".

Kamisetak

Espedizioko gastuei aurre egiten laguntzeko, laukoteak Berriain Akoncagua Sakandar Espedizioa 2023" leloa duten kamisetak atzeratu zituzten. Berriain eta Aconca-



Joseba Aldaz, atzean taldekideak dituela, entrenamenduetako batean. UTZITAKOIA



Eneko Otsagabia eta Amaior Ginea, gailurrera iritsita. UTZITAKOIA

gua mendiak ageri dira parez pare, bi mendien artean dagoen aldearen erakusleho. Beriainen laukoitza da Aconcagua. "Irudiak ez daude eskalan eginak. Beraz, ez da guztiz fidela. Gainera, bi mendiak base berdinean jarri ditugu, baina Beriainen basea 500 metroetan dago, eta Aconca-

ACONCAGUAKO ZEIN KANPAMENDUETAN EGON, ETA IGOERA NOLA EGIN, BERTAN ERABAKIKO DUTE

guakoa 4.400 metroetan. Beraz, alderaketa ez da oso erreala, baina beno" irribarre egiten du Otsagabiak. Salmenta "uste baino hobeki" ari da. "200 saltzea espero genuen eta 250 inguru saldu ditugu".

Abenduaren 30ean igoko dira hegazkinera, eta abenduaren 31n, Gabon Zahar egunean, iritsiko dira Sakanara. "Nekatuta, eta jet lag-arekin, baina bueltatxo bat egitera atera beharko gara" dio Eneko Otsagabiak, irribarrez. Hori izango da espedizioaren arrakasta handiena, etxera ongi heltzea.



Joseba Aldaz, Amaior Ginea eta Eneko Otsagabia. UTZITAKOIA



Odei Juango, Balmenhornen. UTZITAKOIA



Motxilan pisua sartu, eta mendira jo dute sakandarrek entrenamendu gisa. UTZITAKOIA

Ziklo-kros garaia, bete betean

ZIKLO-KROSA Ziklo-kros denboraldia abian da. Larunbatean Cx Iruñea lasterketan Sakana Group taldeko Erik Laiglesia hirugarren izan zen. Euskal egutegiak hamaika proba hartuko ditu, tartean abenduaren 3an jokatu den IV. Urdiaingo Ziklo-krosa

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Urriaren 22an abiatu zen Euskadiko Txirrindularitza Federazioak antolatutako Euskal Ziklo-kros denboraldia. Hamaika lasterketek puntuatuko dute rankingerako, eta tartean dago abenduaren 3an Burunda Txirrindularitza Taldeak antolatuko duen IV. Urdiaingo Ziklo-Krosa, kadeteen, juniorren, 23 urtez azpikoekin, eliteen eta masterren mailakoa izango dena. Zirkuituan proba oso ezagunak jokatu dira, ilbeltzaren 7ko Ormaiztegia, edo igandean Karrantzan jokatutako lasterketa, UCI mailakoa.



Urdainek ziklo-kros proba hartuko du abenduaren 3an. ARTXIBOA

Podiuma Iruñean

Larunbatean, azaroak 4, Iruña Kirolak taldeak antolatutako Cx Iruñea Ziklo-kros lasterketa jokatu zen Lezkairun, kadeteen mailatik hasita, master mailaraino. Txirrindulari sakandarrak kadeteen mailan lehiatu ziren. Aner Irizar (Zatika Goierri) izan zen azkarrena (28:48), eta Sakana

Group-Aralar talde sakandarrak Erik Laiglesia kaskantearra hirugarren sailkatu zen, 42 segundora. Qesos Albeniz-Burundako Xabier Curiel 25. sartu zen, 6:33ra; Ibai Galarza 26., 6:45era; eta Oier Olaberria 37., 9:44ra.

Aurretik aipatu sakandarrak Tolosako III. Arsuaga Memorialean parte hartu zuten eta oso txukun ibili ziren. Azaroaren 12an Zornotzako Ziklokrosa dago jokoan, aldi berean Bizkaiko Txapelketa izango dena.



Israel Arbizu, Nafarroako Kluben Arteko Kros Txapelketan. PEDRO ABOITIZ

Iruñeko harresietatik eta Kros Txapelketatik, Behobiara

ATLETISMOA Israel Arbizuren eta Mikel Astizen Hiru-Herrik irabazi du Nafarroako Taldekako Kros Txapelketa

Atletismo lasterketak puri purian daude. Larunbatean, 10. Harresien Lasterketa jokatu zen Iruñean, eta ia 5.000 korrikalarik hartu zuten parte bertan, tartean hainbat sakandarrak. 5 kilometroko Forteko Lasterketan Ruben Mendieta olaztiarra laugarren sailkatu zen (18:49) eta podiumera igotzear egon zen.

Igandean II. Iruñeko Krosa jokatu zen Lezkairun, aldi berean Nafarroako Kluben Arteko Kros Txapelketa zena (7,5 km). Hiru-Herri kluba izan zen Nafarroako Txapelduna, meritu handiz. Klubeko Aaron Arbizu be-

deratzigarren sailkatu zen (30:02), eta Mikel Astiz ihabardarra hamargarren (30:03). Iraitz Senar (Beste Iruña) hamabosgarren sailkatu zen (30:52); Sergio Garcia de Eulate (Dantzaleku) 23. (31:35); eta Adur Senar 60. (37:02).

Aipatzekoa da Nafarroako Kirol Jokoetan Dantzaleku Sakana Atletismo Kluba bikain aritu zela. 16 urtez azpiko gizonezkoetan hirugarren, eta 10 urtez azpiko mailan laugarren.

Igandean 30.000 korrikalarik parte hartuko dute 58. Behobia-Donostia lasterketa handian, horietatik %29,2, emakumeak.

AIZKORA Eloy Cortxero, Urrezko Aizkolari Kopako kanporaketan

Igandean XIX. Urrezko Aizkolari Kopa "Eusko Label Saria" txapelketako hirugarren kanporaketa jokatu da Ribabellosan, 12:30ean, eta bertan lehiatuko da Eloy Kortxero, Hodei Ezpeleta, Oier Kañameres IV., Mikel Larrañaga, Ugaitz Mugertza II. eta Eneko Saralegi aizkolariekin batera. Lau kana erdiko erdibitu beharko dituzte, eta lehen hiru aizkolariak finalerdietarako sailkatuko dira.

Bestalde, Altsasun ikusmin handia sortu du larunbatean, 18:30ean Burunda pilotalekuan Arkaitz Jauregi-Fidel Jimenezek eta Iñaki Vazquez-Eneko Larrioren jokatu duten aizkora eta crossfit apustuak.

Padel egun aberasgarria

PADELA Mankomunitateak emakumeei zuzendutako Padel Ate Irekiak egin zituen, igandean, Arbizuko Sakana Padel egoitzan. "Kultura ezberdineko emakumeak elkartu eta padelaren bidez harremana egin genuen. Umeak ere oso gustura egon ziren. Oso aberasgarria, errepikatzeko gogoz gaude" azaldu du Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak.



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO

LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245

/ kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 10

ALTSASU Hitzaldia.

Indarkeria matxista sare sozialatan
Berhezi aholkularitzaren eskutik,
Altsasuko Udaleko Berdintasun eta
Gazteria zerbitzuek antolatuta,
A25aren egitarauaren barrua.
18:00etan, Iortia kultur gunean.

URDIAIN Tailerra.

Argia eta itzala Haurrendako itzal
antzerki laborategiak.
18:30ean, liburutegian.

ALTSASU Hitzaldia.

*Alternatiba badago. Tren sozialaren
alde, AHTrik ez!* EH Bilduren hitzaldia:
Ainize Ibartutxi Altsasuko zinegotzia
eta bozeramailea, Mikel Otero EAEko
legebiltzarkidea eta Adolfo Araiz
Nafarroako legebiltzarkidea.
18:30ean, Iortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Tailerra.

Talo tailerra, Olaztiko Gazte
Asanbladak antolatuta.
18:30ean, Maisuenea gaztetxean.

IRURTZUN Liburu aurkezpena.

El latido de los tres burgos liburuaren
aurkezpena, Jose Miguel Albizu
egilearekin eta Maria Oset Ediciones
Eunateko editorearekin, Elustondo
papertegiak, Marxueta liburudendak,
Irurtzungo liburutegiak eta udalak
antolatuta.
19:00etan, kultur etxean.

LAKUNTZA Bazarra.

Azaroaren 30eko Greba Feminista
antolatzeko herri asanblada irekia.
19:00etan, kultur etxean.

ZIORDIA Liburu aurkezpena.

*¡Ay ene! Ziordia, Villafranca y
Txantrea en el corazón* liburuaren
aurkezpena, Mila Martínez Jaurrieta
egilearekin.
19:00etan, liburutegian.

OLAZTI Kontzertua.

DJ Mc Flurry disko jartzailearen saioa.
23:30ean, Barandi tabernan.

LARUNBATA 11

LAKUNTZA Mendi martxa.

AHTaren zundaketak ezagutzeko eta
salatzeko mendi martxa, STOP AHT
Zundaketak herri ekimenak
antolatuta. Lakuntza – Arbizu –
Lakuntza 10 kilometroko martxa.
09:30ean, plazatik.

ETXARRI ARANATZ Omenaldia.

*Mikel Arregi Gogoan 44. urteurrena
lore eskaintza. Egiaren bidean
askatasuna amets!* Mikel Arregi
Gogoan herri ekimenak antolatuta.
12:30ean, oroigarrian.

Etxarri Aranaz Scape room.

Zentzumenen plazerra Gozamenez
scape rooma. Taldeka.
**16:30ean, 18:00etan eta
19:30ean, Kultur etxean.**

ALTSASU Gazte agenda.

Sarean Euskaraz: Memek ikastaroa.
**18:00etatik 20:00etara,
Intxostiapunta gazte gunean.**

ALTSASU Crossfit eta
aizkolaritza apustua.

Aizkorri Kirol Zentroak antolatutako
crossfit eta aizkolaritza apustua:
Vazquez - Larrion / Jauregi – Fidel.
Lanak: 1.500 m ski egitea;
kanaerdikoa erdibitu; traktorearen
gurpila arrastaka ekarri; kanaerdikoa
erdibitu; 4 km airbike egin;
kanaerdikoa erdibitu; arraun
makinarekin 1.500 m egin;
kanaerdikoa erdibitu; traktorearen
gurpilari bueltak ematen edo gurpila
irauliz 10 plaza osatzea; kanaerdikoa
erdibitu; xingak: 25 kiloko txingekin
30 plaza egin; kanaerdikoa erdibitu.
18:30ean, Burunda frontoian.

ALTSASU Antzerkia.

Hondamendia Artedrama eta Axut!
konpainien ikuskizunaren emanaldia,
Berriak, Sakanako Mankomunitateak
eta Altsasuko Udalak antolatuta.
19:00etan, Iortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Pleura taldearen kontzertua, taldearen
amaiera bira eta *Bira Nafarroan* Barna
programaren barruan.
23:00etan, kultur etxean.

ASTELEHENA 13

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen
Mugimenduaren Pentsio duinen
aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

ARBIZU Hitzaldia.

Pixoihal berrerabilgarrien inguruan
ikasteko, galdetzeko eta ekarpenak
egiteko informazio saioa.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN*Sonido de la libertad*
gaurkotasunezko filmaren
emanaldiaIgandea 12: 19:30
Astelehena 13: 19:30*Mi otro Jon* gaurkotasunezko
filmaren emanaldia
Osteguna 16: 19:00IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN*O corno* zineforum filmaren
emanaldia
Igandea 12: 19:00*La contadora de películas*
zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 16: 19:00*Gran Hotel Nazareno* Txuspo
Poyoren film laburraren
emanaldia, Arte Azokaren
barruan
Ostirala 17: 19:00

17:00etan, Kattuka Haur Eskolan.

ASTEARTEA 14

LAKUNTZA Joskintza tailerrak.

Estanpazioa familian, adin
guztietarako. Sakanako
Mankomunitateak antolatuta.
**16:30etik 18:30era, Sakanako
Mankomunitatearen egoitzan.**

UHARTE ARAKIL Pilota.

Nafarroako Kirol Jokoen XXXVII.
Gazteen Lau eta Erdiko Guillermo
Mazo Memorialaren partidak.
18:00etan, frontoian.

ASTEAZKENA 15

DORRAO Ipuin kontakizun
antzeztua.

Liburu sendalaria ipuin kontakizun
antzeztua, Euskarabidearen Gora
Gora Fest programaren barruan.
17:30ean, Herri aretoan.

IRURTZUN Irakurle taldea.

Zerua gainbehera dator Lorena
Mazzetiren liburua mintzagai izanen
du Pikuxarreko irakurle taldeak.
19:00etan, Pikuxarren.

OSTEGUNA 16

UHARTE ARAKIL Tailerra.

Zaintzen inguruko irakurketa eta
idazketa tailerra Nerea Balda Sanjuan
idazlearen eta Altsasu institutuko
irakasle irurtzundarrak gidatuta:
Zaintzaren gaiari buruzko testuetan
oinarririk, hauek eragiten dutenari



**ALTSASU Antonio Valencia
natura argazkien erakusketa,
Altsasuko Mendigoizaleak
taldeak antolatuta.
Azaroaren 30 arte. Iortia kultur
guneako aretoen korridorean.**

**ALTSASU XII. Arte Azoka
erakusketa, Artebide elkarteak
antolatuta.
Urriaren 20tik azaroaren 20ra.
Astelehenetik ostiralera 17:00etik
20:00etara, larunbatetan
ikuskizuna hasi baino ordu bat
lehenago, igandetan 18:30etik
19:30era. Iortia kultur gunearen
erakusketa aretoan.**



**IRURTZUN Francisco Navarro
artistaren margo erakusketa.
Azaroan. Pikuxar tabernan.**

buruzko gogoeta egitea eta idazki
intimo eta kolektiboa sortzeko tailerra.
Ez mistoa eta euskara menperatzea
gomendatzen dute, UharTE Arakilgo
Mugimendu Feministak antolatuta,
Ostegun moreak programaren
barruan.
18:30ean, udaletxean.

OSTIRALA 17

Altsasu Gazte agenda.

Sexgunea sexualitate aholkularitza
zerbitzua.
**17:30etik 20:30era, Intxostiapunta
gazte gunean.**

ALTSASU Hitzaldia.

Sahararen aurkako zapalketa
aztertzen: Sahara herriaren
zapalketa eta egungo egoera
aztergai Altsasun bizi diren bi
sahararrek. Euskaraz eta
gaztelaniaz. Altsasuko Gazte
Asanbladak antolatuta.
18:00etan, gaztetxean.

ALTSASU Tailerra.

Irakurkide Txakurrek lagundutako
irakurketa tailerrak, Biak Bat
elkartearen eskutik, Biak Bat-ek eta

Sakanako Mankomunitateak
antolatuta.

18:30ean, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ Antzerki
foroa.

*Binomio. Desioa eta indarkeriari
buelta bat. Pornoa.* Sexu
indarkeriaren prebentziorako antzerki
foro parte hartzailea, 12 eta 18 urte
bitarteko gazteendako. A25aren
harira Sakanako Mankomunitateko
Berdintasun zerbitzuaren egitarauaren
barruan.
**19:00etan, ikastolako soinketa
gelan.**

ETXARRI ARANATZ Bakarrizketa.

Iker Plazaola eta Antton Telleriaren
bakarrizketa saioa.
22:00etan, kultur etxean.


ALTSASU Gazte agenda.

Gaubela.
**22:00etatik aurrera, Intxostiapunta
gazte gunean.**

OLATZAGUTIA Kontzertuak.

Inguma, Crida Salvatge eta Bulkada
taldeen kontzertuak, Olaztiko Gazte
Asanbladak antolatuta.
23:00etan, gaztetxean.

ESKELA



Kepa Márquez Perujo

Zure lagunak

ESKELA



Begoña Flores Lakuntza

"Gu sortu ginen enbor beretik, sortuko dira besteak"

Flores sendia

ESKELA



Maria Begoña Flores Lacunza

Besarkada bat familiarendako

Imanolen lagunak

OROIGARRIA



Mikel Arregi Marin

XLIV. urteurrena



Zure irrifarra, zure alaitasuna gure artean bizirik.

Zure familia
Lakuntzan, 2023eko azaroaren 11n



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifikak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70 € prezio hauek BEZA barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IRAGARKI SAILKATUAK

IRAKASKUNTZA
LH ikasleendako klase partikularrak: Aktiboan nagoen irakasle bat naiz eta Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut. Interesa baduzu deitu edo idatzidazu. 655 448 901.

LANA/NEGOZIOAK
ALOKAGAI
Altsasun 'Coworking' bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatutako bulegoa; Wifi, inprimagailua, berogailua, kumina eta office-a ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

IKASTAROK
Arakilgo Udak 60 urtetik gorakoendako ongizate ikastaroa antolatuta du: Asteazkenetan 10:00etatik 12:00etara Etxarrenen izanen dira. Batetik estimulazio kognitiboa landuko dute mahai jolasetan jolastuz, musikoterapia etabekin, eta bestetik ibarretik paseo osasuntsuak eginen dira. Arakilen errolatutakoek 10 euro ordaindu behar dituzte, ez errola-

tuek 15 euro. Izena emateko epea, bihar, larunbata, azaroaren 11n amaitzen da. Informazioa eta izen emateak 634 584 226 edo 948 500 101 telefonoetan.

Mank-en Hondakin zerbitzuak antolatutako jostintza tailerrak: Estanpazioa familiar (hau bikoteak egingo da) azaroaren 14an 16:30tik 18:30era, Mank-en Lakuntzako egoitzan. Tailerra Erabili enpresarekin elkarlanean prestatu da. Izena emateko info.hondakin@sakana-mank.eus helbidera idatzi edo 674 144 114 telefonora Whatsapp mezua bidali lehenbailehen plazak 12 lagunetara mugatuak direlako. Animatu eta parte hartu.

OHARRAK
Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda marbxan: Altsasuko Udako Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioa zabalpen zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuetatik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp mezua bat zure izen-abizenekin eta zerrendan

parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Aralarko Santutegiko museoa bisita gidatuak egiteko aukera: Aralarko Santutegiko museoa ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandeetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN

Izarra, Nafarroako tanatorioa
Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK
ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

JAIOTZAK

- **Aysha Harchi**, azaroaren 2an Olaztin

HERIOTZAK

- **Francisca Razkin Ezkurdia**, azaroaren 2an Lakuntzan
- **Maria Begoña Flores Lacunza**, azaroaren 4an Lizarragabengoan
- **Margarita Cambra Idiazabal**, azaroaren 5ean Iturmendin
- **Jose Joaquin Guajardo Olmedillo**, azaroaren 8an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Nabarmendu zure iragarkia
Modulo handia:
24,20 euro
948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia
Modulo txikia:
14,52 euro
948 564 275

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es


Familiaren eleberria

'¡Ay ene! Ziordia, Villafranca y Txantrea en el corazón' liburua aurkeztuko du Mila Martínez Jaurrieta idazleak gaur, azaroak 10, ostirala, Ziordiko liburutegian. Gertuko istorioetatik abiatuta gerran oinarritutako "intrigazko" nobela idatzi du

Erkuden Ruiz Barroso ZIORDIA

"Ai ene!" sorpresa atseginak eta desatseginak adierazteko "askotan" erabiltzen den esamolde bat da, eta horregatik Mila Martínez Jaurrieta idazleak bere lehenengo eleberriaren izenbururako aukeratu zuen: "Familiar erabiltzen zen adierazpen batean pentsatuz *ai ene* atera zitzaidan, etengabe ahoskatzen den adierazpen bat. Familiar hainbeste gertakizunen aurrean askotan esango zutela uste dut". Liburuaren izenburu osoa *¡Ay ene! Ziordia, Villafranca y Txantrea en el corazón* da, Martinezen hiru lekuak: "Nire aita Ziordikoa zen eta nire ama Villafrancakoa. Nire senideen herriak dira, bezaz, Ziordia eta Villafranca. Ni Txantrean jaio nintzen, nire gurasoak ni jaio nintzenean hemen bizi zirelako eta Txantrean jarraitzen dut". Gaur, azaroak 10, ostirala, 19:00etan, eleberriaren aurkezpena egingen du, Ziordiko liburutegian.

Idazteko zaletasuna "betidanik" izan duela esan du Martinezek. "Baina filosofia irakaslea izan naiz institutuetan, ama izan naiz, eta amatasunak eta lanak ez zidaten denbora asko uzten idazteko". Filosofiako klaseetarako testuak idazten zituen, "urtero filosofiaren inguruan asko idatzi dut; zaletasun hori izan dut". Baina "inoiz" ez zuen planteatu publikatzeko moduko zerbait idaztea: "niretzat egiten nuen, afizioagatik, besterik ez". Bestetik, *¡Ay ene! Ziordia, Villafranca y Txantrea en el corazón* liburua ere "betidanik" izan du buruan, eta duela urte asko kontatu nahi zuen. "Familiako historiari buruz galdetzen hasi nintzenean protagonistek oroitzekoan asko sufritzen zutela konturatu nintzen,



Mila Martínez Jaurrieta '¡Ay ene!'-ren egilea, liburuarekin. UTZITAKOA

eta azkenean hori ulertu eta aurrerago egingo nuela pentsatu nuen".

Duela bi urte iritsi zen unea: "Ikerketarekin hasi nintzen. Familiar gertatu ziren gertakizun latzetan oinarritu naiz, baina gaiaren inguruan dokumentatu naiz, hemerroteketan, artxiboetan, datu historikoetan eta abarretan". Errealitatearen eta fikzioaren arteko nahasketan egin du idazleak, "eta seguraski horrela gertatu ziren eta ez nekien egoera asko irudikatu ditut, baina nituen datuekin pentsatu nahi dut posibleak izango zirela".

Eleberria

Filosofoa denez "filosofiatik zerbait" daukala esan du Martinezek, "baina eleberri bat da". Gainera, intriga eta suspentsea sartu du, "pixka bat engantxatzeke", eta liburua dagoeneko irakurri dutenek esan dutenez, "erraz irakurtzen da".

Spoilerrik egin gabe, familia istorio bat kontatzen du *¡Ay ene!*-k: "Familia guztietan daude gertakizunak, batez ere gerra eta frankismo garaian. Familia guztietan gertatu dira gauzak eta guztietan daude isiluneak, tabuak eta ezbeharrrak kontatu nahi izan ez dituztenak". Martinezen familiar, "askotan bezala", gertaera "latzak" daude, "ustekabeak eta biolentoak", eta bere familiaren konposizioa "nahiko berezia" da gainera. "Ez da familia tradizional bat, ezkontzetan gurutzeak daude, horregatik historia berezia zen eta familiako gauza hauek ezagunei kontatzen nizkienean esaten zidaten kontatu behar nuela, oso berezia zela". Horregatik ere liburua idazteko gogoia sartu zitzaion. "Isildutako istorioa izan zen eta nerabe nintzenean enteratu nintzen. Gauza horietaz jakitea oso gogorra izan zen niretzat, gurasoen inguruan ez nekizkien gauzak, eta inflexio puntu bat izan zen nire bizitzan".

Eleberria idaztea ez dela zaila izan azaldu du Martinezek: "Idaztera oso ohituta nagoelako, eta beste alde batetik, istorioa hau urte askotan buruan izan dudalako". Zer kontatu nahi zuen bazekien, eta horregatik ez da idaztea zaila izan. "Baina emozionalki gogorra izan da". Irakurleek esan diotenez eleberriak

"emozio" hori transmititzen du, eta jendeak negar ere egin du irakurtzerakoan. "Nik ere negar egin dut, farra egin dut, asko hunkitu naiz eta, azkenean, oso polita izan da". Askatzailea izan da, "liburua ateratzean asetuta gelditu naiz".

Liburua idazten hasi zenean berarendako izango zela uste zuen idazleak, "nire familiarendako, lagunendako... ez nuen argialetxe batera joateko pentsatu". Baina argialetxe baten batekin kontaktatu behar zuela esaten zioten eta azkenean kontentzitu zuten: "Argialetxe batek, Papeles del duende-k, berehala erantzun zuen". Nobela idatzita bai, baina izenburua jartzerakoan "kostatu" zitzaiola esan du Martinezek. "Izenburuarekin eztabaidak izan genituen izenburu egokiena lortzeko". Adierazpen "familiar" bat pentsatuz *Ai ene!* atera zitzaion, "zonaldeko jendeak dakienez, etengabe esaten den adierazpen bat da. Bai sorpresa atseginen edo desatseginen aurrean". Familiar izandako gertaerekin askotan esango zutela uste du idazleak.

Azalean, berriz, emakume bat agertzen da. June Lizarraga argialetxeko ilustratzaileak egin du irudia, "eta gustatu zitzaidan. Istorioa, azken finean, emakume indartsuen istorio bat da. Gerra eta gerra ostean bizi izan ziren emakumeak, alarguntasuna, tristezia...". Azalak eleberrian kontatzen dena ongi islatzen duela esan du Martinezek.

Ziordia

Liburuaren "herena" Ziordian gertatzen dela aurreratu du idazleak. Herriarekin harremana mantentzen du: "Urtean behin, gutxienez, festetan egun batean beti, joaten naiz. Lehen izeba bizi zenean gehiago joaten nintzen, baina lehengusu-lehengusinekin harremana daukat eta askotan elkartzeko gara". Gaur Ziordiko liburutegian egongo da liburua aurkezten, eta, esan duenez, zior-diarrei istorio asko ezagunak egingo zaizkien arren, beste batzuk ezezagunak izango dira.

"ISTORIOAK AZALTZEN NITUENEAN KONTATU BEHAR NITUELA ESATEN ZIDATEN, BEREZIAK ZIRELAKO"



Pablo Molinero eta Maria Vazquez aktoreak, Helena Tabernarekin. UTZITAKOA

Helena Tabernaren lan berria grabatzen ari dira Bilbon

Urriaren 2an hasi eta gaur arte izan da 'Nosotros' zinemagile altsasuarraren film berriaren errodailea

ALTSASU

Helena Taberna zinemagile altsasuarra *Nosotros* filma grabatzen egon da Bilbon eta Bizkaiko zenbait herritan; besteak beste, Barakaldo, Durango, Orduña eta Amorebieta. Filmaketa urriaren 2an hasi zuten eta gaur, azaroaren 10ean, amaitzea aurreikusita dute, sei asteko lanaren ondoren. Filmaren protagonistak Maria Vazquez eta Pablo Molinero dira, eta maitasun istorio bat kontatzen du, amaieratik hasita; maitasun eta desamodio istorio bat. Tabernak azaldu duenez: "*Nosotros* pertsona arruntan eta pasio unibertsalen istorio bat da, edozein ikus-entzule identifikatuta senti daiteke". Istorioko "pisua" aktoreek daramatzatela gaineratu du. Hortaz, Vazquez eta Molinero pertsonaiak interpretazioak egiteko "heldutasun profesionala" eta une egokian daudela esan du zinemagileak.

Filma Isaac Rosa idazlearen *Final feliz* liburuan oinarritzen da; hainbat hedabideen Espainiako 2018ko Liburu Hoberearen izendapena jaso zuen. Gidoia Helena Tabernak eta Virginia Yaguek idatzi dute. Bestetik, argazki zuzendaria Txarli Argiñano izanen da, arte zuzendaria Maite Perez Nieves eta Javier Vernal jantziteri zuzendaria. Iker Ganuza da filmaren ekoizle orokorra, Vertigo Filmseko Maribel Muñozekin. Lamia Producciones, Vertigo Films eta *Nosotros* pelikula ekoizpena da, RTVE eta EITBren laguntzarekin, eta ICAA Espainiako Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntza izan du ere. 2024. urtearen amaieran zinema aretoetan mustutzea aurreikusten dute.

Saioa Alkaiza finalera, Altsasuko saioa irabazi ondoren

Altsasuko Iortia kultur gunean jokatu zen 2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehen finalaurrekoa. Sei bertsolari aritu ziren, eta saioa ariketa puntuagarri guztiak eginda, Saioa Alkaizak eskuratu zuen puntu gehien (506,5), saioa irabazi eta abenduaren 2an Iruñeko Anaitasunak kiroldegian jokatu den finalerako sail-

katu da. Haren atzetik gelditu dira Saats Karasatorre etxarriarra, Sarai Robles, Eneko Fernandez, Ekhiñe Zapiain eta Patxi Castillo.

Bihar, azaroak 11, 17:30ean, jokatuko da Agoitzen bigarren finalaurrekoa. Idoia Granizo Urribarrena eta Ekain Alegre Gil bertsolari altsasuarrak ariko dira, Julio Soto Ezkurdia, Xabat Illarregi Marzol, Julen Zelaieta Iriarte eta Urko Gartzia Alemanekin batera. Maialen Belarra zianen da gai jartzailea.



AnneKdotas abeslari olaztiarra kontzertu batean. UTZITAKOA

AnneKdotasen urte "indartsuena"

Anne Rodrigez Kintana musikari olaztiarraren proiektuak gora egin du aurren, eta inoiz baino kontzertu gehiago eman ditu. Zenbait kolaborazio egin ditu, eta 'Ehundu Gasteiz' proiektuan parte hartu du ere. Hurrengo urratsa diskoaren grabazioa da

Erkuden Ruiz Barroso OLATZAGUTIA Anne Rodrigez Kintana AnneKdotas da, eta, aldi berean, ez da. "Egia esan Anne eszenatokitik kanpo mugituagoa da, AnneKdotas eszenatokitik igotzen denean serioagoa da". Pandemiaren aurretik hasi zen olaztiarra musika proiektuarekin, "lehenengo kontzertua itxita neukan, eta ezin izan nuen egin". Itxialdiak proiektuarekin aurrera jarraitzeko "lagundu" zion: "Hasieran ez nengoen oso seguru, baina tarte horrek gogo gehiago izateko lagundu zidan". Hiru urte ondoren aurretengo uda "indartsuena" izan dela esan du musikariak: "Gasteizko Falerina tabernan kontzertu batekin hasi eta hortik ateratzen joan dira". Beste artistekin kolaborazioak egiten ditu, eta tartean *Ehundu Gasteiz* proiektuan parte hartu du.

Reggaetoiaren eta patxangeoaren inguruan murgiltzen hasi zen AnneKdotas, baina denborarekin rap-era jo du. "Gustutzen zait; inguruko musikariek rapa egiten

dute, eta kutsatu naute". Melodiak berak sortzen ditu, eta sortzaileekin kolaborazioak egiten ditu ere. Bi kolaborazio ditu eskuartearen; lehenengoa *Ehundu Gasteiz* abestia Mice, Haizeatxo eta Benizze-ekin, eta K-Style DJarekin egiten ari den techno abestia, "pum-pum horietako bat". Musika estilo aldetik, "denetarik" egiten du AnneKdotasek.

'Ehundu Gasteiz'

AnneKdotas Gasteizen bizi da eta bertan egiten duen *100 urte bakarrik ezin da* dinamikatik abiatuta, aurren Gasteizko herri mugimenduko zenbait kolektibo ospatzen ari diren urtebetetzerako *Ehundu Gasteiz* abestia sortu zuten: Hala Bedik 40 urte betetzen ditu, Gasteizko Gaz-

tetxeak 35, Auzolana Pilotalekuak 15, Errekaleor Bizirik!-ek 10 eta Sumendik 7 urte, "denen urtebetetxeak batuta ehun urte dira, eta ospatzeko proiektua egin zuten".

Mice taldeak, "rock and roll lasaia, pop-etik gertu egiten du", sortu du abestia, eta AnneKdotasek, Haizeatxok eta Benizzek kolaboratu dute abestian. Eli Zaldua eta Xabier Antia bertsolariak sortu zuten letra. "Niretako prozesua oso polita izan da ez nuelako espero; Miren Narbaiza Miceko abeslariak deitu zidan eta musika oinarria bidali zidan horren gainean zortzi konpas egiteko". Egun batean Miceren estudioan gelditu ziren, "oso estudio txukuna dute", eta abestia grabatu zuten: "Bakoitzak gure zatia grabatu genuen, eta arratsalde bat pasa genuen. Oso gustura egon ginen". Haizeatxo rap abeslariarekin kolaboratzeko gogoia zuela esan du olaztiarrak.

AnneKdotasek esku artean duen beste proiektu bat Zuleko DJ K-Stylekin sortzen ari den techno

MUSIKARI OLAZTIARRAK 'EHUNDU GASTEIZ' PROIEKTUAN PARTE HARTU DU

abestia da. "Technoaren munduan murgiltzen ari naiz ere, eta kolaborazioak ateratzen ari dira". Disko jartzaileak musika oinarria bidali zion eta horren gainean abestia sortu zuen AnneKdotasek: "Egia esan dena mantendu dit; technoan nahasketa asko egiten dira eta agian esaldi bat hartzen dute eta horrekin mantentzen da ia abesti osoa. Baina grabatu nuen moduan utzi du". Bideoklipa laster grabatzea espero du. "Ikusten dut proiektuak funtzionatzen duela eta gora noala. Aprobetxatu nahi dut eta musika egiten jarraitu nahi dut".

Diskoa grabatzeko "intentzioa" du olaztiarrak. Kontzertuetan hamar bat abesti egiten ditu, eta diskoan horietako zortziren bat sartzea nahi du. Gainera, aurretik "hala-nola" grabatutako zenbait abes-

tiren bertio berritua egitea gustatuko litzaioke ere. "Urtarriletik aurrera nire teknikariek in studioan sartzea espero dut. Abestiak prest ditut". Kolaborazioak egiten ere jarraituko duela esan du, "orain gehienbat kolaborazioak eta abestiak ateratzen dira".

Aurkezlea

AnneKdotas musikaren munduan zentratu da, eta interpretazioa alde batera utzi du. Baina Beldur barik Eusko Jaurlaritzak eta Emakunde antolatzen duen programaren topaketako aurkezlea izanen da, Beasainen. "Aurreko urteetan Beldur barik programan parte hartu izan dut berdintasunaren aldeko antzerkiak egiten eta musikaren letren inguruko hitzaldietan, eta aurten aurkezteko deitu didate".



BAZTERRETIK

OIHANE AGIRRE ULAIAR

23.A-30/GFO: Denon Bizitzak Erdigunera



berria ekitaldiak

IDAZLEA: HARKAITZ CANO · ZUZENDARIA: XIMUN FUCHS

hondamendia.eus



Azaroak 11
Larunbata · 19:00

Altsasu
Iortia kulturunea



Sarrerak:

• Aurretik 12€ (BERRIAlagunek 10€) • Egunean, 14€ (BERRIAlagunek 12€ - txartelarekin)

Sarrerak salgai:

• Iortia kulturunean eta www.iortiakultura.com helbidean.

Antolatzaileak:

berria

BADOK

Mank

Laguntzaileak:

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra

Altsasuko Udala

"Bakoitzaren postrea sekretu handia izaten da"

Irurtzango San Martinetan Erga Larreak elkarteak antolatzen duen postre lehiaketa makina bat aldiz irabazi du Miriam Rekaldek. Bere amarekin lehia sana izaten du. Larunbatean aurkeztuko duen postrea buruan du: "probatu dute, eta gustatu zaie"

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN

1 Noiztik parte hartzen duzu Irurtzango San Martin festetan Erga Larreak elkarteak antolatzen duen postre lehiaketan?

Aspalditik. 2013 urtean hasi nintzela uste dut. Ordutik urtero aritu naiz, epaimahaiko kide izan nintzen aldi bat salbu. Eta, jakina, pandemiagatik txapelketa bertan behera geratu zen bi urteetan izan ezik.

2 Zergatik animatu zinen?

Sukaldaria naiz, hori da nire lanbidea. Kozinatzea gustuko dut, eta sukaldaritzaren barruan postreak egitea izugarri gustatzen zaie. Hor lantzen dut nire sormena. Astero etxean postreren bat egiten diet. Behin pentsatu nuen: animatu eta San Martinetako postre txapelketara aurkeztuko naiz, ea zer ateratzen den. Gustatu zitzaidan, eta urtero aurkeztu naiz.

3 Jende asko animatzen omen da lehiaketara.

Bai, mahaia beti postrez betetzen da. Pandemiaren ondoren kopurua pixka bat jaitsi zen, baina hala ere jende asko animatzen da, bai parte hartzera, eta baita txapelketa ikustera ere.

4 Txapeldun handia omen zara. Zenbatetan irabazi duzu?

Sarritan, ez dut inoiz zenbatu. Ez diot kopuruari aparteko garrantzirik ematen. Niri txapelketan parte hartzea gustatzen zaie. Urtero lehendabiziko saria, bigarrena edo hirugarrena lortzen dut, hor ibiltzen naiz. Arroz-esne mousse-az betetako krepak, kanutillo edo kiribilak... denetatik egin dut.

5 Sarritan txapelduna izan zarenez, urtero irabazteko presioa izango duzu.



Miriam Rekalde Maestre, postre lehiaketan lortutako sari batekin. UTZITAKOA

Bai (kar-kar). Nire ama eta biok beti aurkeztu gara; berari ere postreak asko gustatzen zaizkio. Batzuetan biok lortzen dugu sariren bat; noizbait berak irabazi du eta ni bigarren izan naiz, edo hirugarren... Bata edo bestea, sarituak izaten gara beti. Nik irabazten dudanean ilusio handia izaten dut, baina amak irabaztea ere gustuko dut.

6 Hortaz, etxetik hasita hasten da lehia...

(Kar-kar) Bai! Batak besteari ez diogu kontatzen zer prestatuko dugun. Lehiaketara aurkeztu aurretik norberak bere etxean egiten dugu, gainontzekoek proba dezaten. Bakoitzak zein postre aurkeztuko duen, gure familian sekretua izaten da. Askotan liburuetan edo telebistan zerbait berezia ikusi, eta txapelketan pentsatzen dugu. Beti ideiak

hartzen! Dena den, normalean azken unera arte ez dugu erabakitzen. Izan ere, asko pentsatu beharra dugu, urte asko baitaramatzagu lehiaketan parte hartzen. Azkenean ia ez dugu gauza berririk prestatzeko.

7 Postreak ezin dira errepikatu?

Errepikatu daitezke, urtero epaimahai ezberdina baitago. Baina polita da urtero gauza ezberdinak probatzea eta egitea.

8 Sukaldari zaren aldetik iruditzen zaizu txapelketara kategoriazko postreak aurkeztu direla?

Bai. Epaimahai lanetan egon nintzenean oso zaila izan zen erabakia hartzea, postre bikainak aurkeztu direlako. Zaporea, elaborazio prozesua eta egindako lana, originaltasuna, aurkezpena... guztia hartzen da kontuan. Maria Eugenia Barrosok hartzen

ditu postreak, eta bakoitzari zenbaki bat jartzen dio, inork ez jakiteko nork aurkeztu duen zer. Bukaeran, epaimahaia hiru postre onenak izendatzen ditu eta orduan jakiten da norenak diren. Sariak beti gozogintzako gauzak dira: irabiagailu bat, pisua, Argiñanoren liburua... halako gauzak. Dena den, zure postrea txapelduna izan dela jakiteak, horrek ez du preziorik.

gustura hartzen dira. Azoka, erraldoiak, musika, jai giroa... polita izaten da.

10 San Martinetan propio dastatzen duzuen postre edo jaki berezirik ba al duzue?

Ez, San Martinetan berez jaten dugun produktu edo jaki tipikorik ez dugu. Ez gozorik, ez bes-telakorik.

11 Festetarako gogotsu al zaudete? Aurten ere postre lehiaketara animatuko zara?

Lan egitea dagokit, baina parranda pixka bat egingo dut. Eta jakina, postre txapelketara aurkeztuko naiz. Irurtzundarrak ere animatzen ditut. Badakit zer prestatuko dudana; etxean egin dut, eta gustatu zaie.

ERALDATU

zure irudia

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus